

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

EuskaraGoiTek

Hizkuntza kudeaketaren gaineko diskurtsoa
teknologia aurreratuko sektorean

EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA



Arrasate, 2021eko uztaila

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. PROIEKTUAREN AURKEZPENA.....	4
2.1 XEDEA	4
2.2 EGITURA	4
2.3 GARAPENA	6
2.4 SORTUTAKO EDUKIAK ETA PRODUKTUAK	14
3. EMAITZA	16
3.1 NARRATIBAK, GAIKA SAILKATUTA	16
3.2 GAIEN ARTEKO ELKARRERAGINEN ANALISIA	27
3.3 NARRATIBAK, PROFILKA SAILKATUTA	288
3.4 EUSKARAREN BALIO POSITIBOAK	44
3.5 AUKERA IZAN DAITEZKEEN NARRATIBAK	45
3.6 NARRATIBA ERALDATZAILEAK	45
3.7 BOTERE HARREMANEN ANALISIA	45
3.8 ENTZUTE OSAGARRIA	46
3.9 ETORKIZUNERAKO GAKOAK ETA DISKURTSO BERRIA SORTZEKO IDEIAK	47
4. ONDORIOAK	50
4.1 IKERKETA PROZESUAREN INGURUKO ONDORIOAK	50
4.2 EDUKIEN INGURUKO ONDORIOAK	51
4.3 AURRERA BEGIRAKOAK	552
5. KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA	53
6. AZKEN HITZAK	54
7. ERANSKINAK	55
7.1 ENTZUTE OSAGARRIA	55

1. SARRERA

Teknologia aurreratuaren sektorea **estrategikoa** da lan munduan, bertatik bideratzen diren ikerketek eta proiektuek eragin handia izaten baitute beste sektore askotan. Ondorioz, euskarak lan munduan posizio hobea eskuratzeko, beharrezkoa zaigu teknologia aurreratuaren sektorean **aurrerapausoak ematea**. Baina, zer diskurtso eta narratiba daude sektore teknologikoan euskara erabiltzearen inguruan? Zer uste, pertzepzio eta balio daude sektoreak bere buruari kontatzen dion istorio horretan? Hori ezagutzea gakoa izan daiteke ondoren aurrera begirako ekinbideak proposatzeko.

Abiapuntu horretatik abiatu genuen 2019an teknologia aurreratuaren sektorean hizkuntza kudeaketaren inguruko diskurtsoak ikertzeko proiektua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean. Eta egitasmoaren xede nagusia **goi teknologiaren arloan diskurtsoak aztertzea** izan bada ere, **diskurtso berria sortzeko** gakoak identifikatu eta **diskurtsoa zabaltzeko bideak** ere landu ditugu.

Ikerketa lan honetan, goi teknologiaren sektoreko hainbat eragileren **lankidetza** izan dugu eta, bide horretan, ahalegin berezia egin dugu **administrazio, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresa aurreratuak** proiektura erakartzeko. Eta emaitza polita eta interesgarria lortu dugulakoan gaude, goi teknologiaren ekosistemako lagin esanguratsua hizketan eta elkarrekin interakzioan jartzea lortu baitugu.

Ikerketaren **Talde Eragilea** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Emun aholkularitzaren artean osatu badugu ere, **Talde Motorra** izan da proiektuari ikuspegia eskaini eta egokitasunaren neurria jarri duen lantaldea. Zalantzarik gabe, ekarpen osoa egin dute Talde Motorrean parte hartu duten sei erakundeetako ordezkariak.

Agirre Lehendakaria Center, aurrerantzean ALC, bidelagun izan dugu proiektuan, eta berrikuntza sozialaren ikuspegia eta metodologia islatuta egon da proiektuan. ALCK dagoeneko ikerketa lan ugari egin ditu euskal erakundeek alderdi kulturala aztertzen, eta uste dugu ALCKren esperientziak eta ezagutzak metodologikoki balio erantsia eman diola proiektuari. Berme zientifikoaren lantaldean parte hartze aktiboa izan dute ALCKo kideek, Emunekin batera.

Komunikazioari dagokionez, berriz, **Kultur Atelier komunikazio** agentziarekin jardun dugu elkarlanean. Kultur Atelierreko lankideek, komunikazioan adituak izateaz gainera, oso ondo ezagutzen dute euskaletzaren ekosistema, eta begirada sakon horretatik jarraitu dute ikerketa prozesu osoa. Bi funtzio bete dituzte: prozesuaren baitako komunikazio lanak egitea, eta amaieran ikerketaren emaitza gizarteratzeko euskarriak sortu eta zabaltzea.

Emunek proiektu osoa kudeatu eta aholkularitza tekniko eskaini du prozesuan zehar.

Txosten honetan bildu ditugu, hain zuzen ere, egitasmoaren xedea ulertzeko azalpenak, egin dugun prozesua, eman duen emaitza, eta atera ditugun ondorioak eta aurrera begirako proposamenak.

2. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2.1 XEDEA

Egitasmo honen azken xedea izan da teknologia aurreratua duten enpresetan hizkuntza kudeaketaren gaineko **diskurtso berri baterako ideiak sortu eta zabaltzeko lanak** egitea.

Azterketa hori egiteko, baina, **lehendabizi** goi teknologiaren sektore osoan **dauden diskurtsoak entzun eta aztertu** ditugu eta, **ondoren**, administrazio, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresa aurreratueta eragileekin batera **diskurtso berria kosortzeko ideia gakoak** atera.

Hiru helburu nagusiri erantzun nahi izan die proiektu honek:

- Teknologia aurreratuko sektorean hizkuntza kudeaketaren gainean dauden diskurtsoak aztertzea. *Aukera*: Zer uste dugu? Zer esaten dugu?
- Teknologia aurreratuko sektorean hizkuntza kudeaketaren gaineko diskurtso berriak sortzeko ideiak proposatzea. *Hautua*: Zer esan nahi dugu?
- Hizkuntza kudeaketaren gaineko diskurtso berriak zabaltzea. *Norabidea*: Nola esango dugu?

Proiektu honen bitartez, ekarpen kualitatibo bat egin nahi izan dugu lan munduaren euskalduntzean. Euskarak teknologia aurreratuaren sektorean dituen (edo eduki dezakeen) **balio positiboak erakutsi** nahi izan ditugu, eta euskarari prestigioa eman. Estrategikoak diren sektoreetan hizkuntza kudeaketari eta euskararen biziberritzeari buruzko diskurtso berrietarako ideiak integratuz, **euskararen aldeko neurri eta konpromiso ausartak** hartzera gonbidatu nahi ditugu sektore teknologikoko eragileak eta lan munduko entitateak.

Xedea, beraz, **euskarak lan munduan prestigioa irabaztea** izan da, horrela euskararen erabilera areagotzeko, euskarak funtzio berriak irabazteko, teknologikoki aurreratuak diren enpresetan eta sektoreetan euskarak duen garrantzia indartuta eta ikusarazita.

Hori guztia lortzeko, **berrikuntzaren faktorea** proiektuaren bihotzean egotea beharrezkoa izan da. Berrikuntza sozialaren oinarriak kontuan hartuz, **aldaketa sistemikoa bultzatu** nahi izan dugu. **Ikerketa bera interbentzio** xumea izan bada ere, bere xumetasunean, ekintza zehatzak egitetik haratago, partaide izan ditugun kideen ohituretan eta balioetan eragin nahi izan dugu, horretarako bide ere ematen duelako martxan jarri dugun prozesu metodologikoak.

2.2 EGITURA

Egitasmoan zehar ahalegin berezia egin dugu bidelagun eta aliatu onak aurkitzeko, eta uste dugu puntako erakundeetako pertsona interesgarriak eta konprometituak erakarri eta inplikatu ditugula proiektuan. Hain zuzen ere teknologia aurreratuaren sektorean estrategikoak diren eragile eta agenteekin jardun dugu lanean:

- **Administrazio**ko eragileekin
- **Hezkuntza** arloko eragileekin (unibertsitateak...)
- **Zentro teknologikoetako** eta **enpresa** aurreratueta eragileekin


Proiektua garatzeko, hainbat erakunderen arteko elkarlana bideratu dugu. Azkenerako, denon artean teknologiaren eta euskararen arloko eragile sare interesgarria egituratu dugula konturatu gara.

Oinarrian, eta proiekturako propio sortu dugun egiturari dagokionez, hauxe izan da **egituraketa**:

Batzorde eragilea	Batzorde zientifikoa	Talde Motorra	Komunikazio batzordea
HPS Emun	Agirre Lehendakaria Center (ALC) Emun	HPS EHU Fagor Arrasate Ikerlan MU SPRI Tecnalia Emun	Kultur Atelier Emun

Halaber, aldiro ikerketaren martxaren berri eman dugu Kontseiluaren aholkularitzen sektoreko mahaian ere.

Hauxe da osatu dugun egituraren irudia:



Arlo metodologikoan, Agirre Lehendakaria Center izan dugu bidelagun proiektu osoan, eta egun berrikuntza sozialeko plataformetan erabiltzen diren eraldaketa teorien ikuspegia txertatu dugu prozesuan zehar.


Proiektu honetan orotara lortu dugun **parte hartze aktiboa** bi datutan laburbiltzen da:

- » 51 pertsona
- » 31 erakunde

2.3 GARAPENA

Metodologia

Diamante bikoitzaren irudiaren bitartez adierazi dugu proiektuaren izaera.



Prozesu hau ez da prozesu lineala izan, aurrera-atzerak izan ditu, eta divergentzia eta konbergentzia uneak ere bai.

Lehenengo helburuari erantzuteko, hau da, egun dauden diskurtsoak jasotzeko, entzute aktiboa egin dugu, elkarriketen bitartez. Interpretazio kolektiboen bitartez, narratiba indibidualetatik kolektiboetara eta haueetatik metanarratibetara igarotzeko ariketa egin dugu. Bigarren helburuari erantzuteko, hau da, diskurtso berrietarako ideiak lantzeko, kosorkuntza garatu dugu. Fase honetan, diskurtso berria sortzeko ideiak eta aurrera begirako ildoak landu dira, kolektiboan ideazio ariketa eginez.

Prozesuan zehar eta bereziki amaieran, zabalkunderako lanak bideratu dira: prozesuaren eta emaitzen komunikaziorako definizioa, lan kreatiboa eta diseinugintza antolatu dira.

Entzute aktiboa

Ikerketa hau entzute aktiboaren metodologian oinarritu da. Uhinaren edo olatuaren logika dago oinarrian; uhina, uhin txiki batetik hasten da eta geroz eta handiago egiten joaten da, indarra hartzen joaten da. Fase ezberdinetan, gero eta sakonago dauden narratibak aurkitzen dira. Uhina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta sakonago dauden narratibak lortzen dira, eta inpaktu handiagoko erantzunak eman ahal izango dizkigu.

Proiektuan zehar **aktiboki entzuteko mekanismoak** erabili ditugu, pertsonen balioetara eta motibazioetara ahalik eta sakonen iristeko. Sektoreko pertsona lagin batekin entzute aktiboko erremintak erabiliz, **elkarriketa sakonak** egin ditugu. Ikerketa etnografikoko erreminta bat denez elkarriketa sakona, elkarriketak ez dira *entrebistak* izan, elkarriketa erdi-gidatuak baizik. Horrez gain, hiru elkarriketa fase ezberdinetan, pertsonen eta narratiben arteko interakzioak bilatu ditugu prozesuan zehar. Entzute ariketaren helburua da pertsonen narratibetatik narratiba kolektiboetarako bidean pausoa ematea. Emaitza, euskara eta teknologia aurreratuen inguruko narratiba multzoa izan da, unibertso pertsona desberdinen pertzepzio eta bizipenekin osatutako metanarratibak.


Elkarrietzeta egiteko **laginketa**rako irizpide nagusia %100-%20-%8 izan da; 32 elkarrietzeta, 25 elkarrietzetatu.

25 pertsonari elkarrizketa bana, pertsona guztiei. %100i.

5 pertsonari, bigarren elkarriketa. Pertsona guztietatik %20ri.

2 pertsonari, hirugarren elkarriketa. Pertsona guztietatik %8ri.

Elkarriketak 3 errondatan egin dira, joan-etorriak antolatu ahal izateko. Erronda bakoitza olatu bat izango litzateke, eta errepikatu den elkarriketa bakoitzak ur sakonagotan sartzeko aukera eman digu (izozmendiaren irudian erakutsi dugun bezala):



1. errondan elkarriketatzailerak jarrera pasiboa izan du: elkarriketaren haria jarraitu du, baina entzutera mugatu da.

2. errondan elkarriketatzailerak jarrera aktiboa hartu du eta galdera orokorrean gain, aurreko errondan eta zentzu emate kolektiboko ariketan ateratako gakoak planteatu ditu, gai batzuetan sakontzeko asmoz, kontu kritikoak azpimarratuz (narratibetan sortutako arrakalak edo inkoherentziak...). Elkarriketatuak “bustitzea” bilatu du, jarrera zirikatzailerarekin.

3. errondako elkarrizketa are gehiago sakontzeko erabili da eta helburua etorkizunerako lehenengo palanka posibleak bisualizatzen hastea izan da. Jasotako narratiben gainean dauden aukera errealez galdetu da eta etorkizunari buruzko galderak ere sartu dira.

Elkarrizketetan jasotako informazioa osatzeko, **entzute osagarria** ere egin dugu, idatzizko eta ikus-entzunezko beste iturri batzuetara jota (ikus eranskina).


Analisiak

Entzute aktibotik identifikatzen ditugu usteak, beldurrak, erronkak, indarguneak, lehentasunak eta abar, eta horien uztarketari **narratiba** deitzen diogu. **Narratibek** gure mundua ulertzeko eta bizitzari zentzua emateko balio digute, eta narratibak ekintzak aukeratzerara eramaten gaituzte (hau pentsatzen dudanez, honela jardungo dut). Beraz, **narratibak ekintzetan amaitzen dira**; horretarako balio digute, ekintzak aukeratzeko, ekinbideak zentzuz egiteko. Azken finean, narratibek identitatea sortzen dute, errotu egiten gaituzte, gure bizitzari zentzua emanez. Horregatik, narratibak identifikatzea da modurik onena gizartean zer gertatzen ari den sakon ulertzeko.

Narratibek mekanismoak izaten dituzte betikotzeko. Mekanismo horien jardunean, baina, tentsio puntuak izaten dira, eta, orduan, haustura gertatu daiteke; ondorioz, narratiba berria sortzen da. Tentsio, haustura, arrakala bat egoten bada, aukera dago narratiba hori eraldatzeko eta **narratiba berri bat sortzeko**.

Izaera honetako proiektuetan gaur eguneko narratiba zein den bilatzen dugu. Etnografiak arrakala hori, haustura hori, identifikatzeko ahalegina egiten du. Tentsio puntu hori da bilatzen ari garena. Batzuetan kontaktzen dugun narratiba eta gure ekintzak ez datoz bat, kontraesanak edo isiluneak egon daitezke, haustura bat dago. **Tentsio puntu horiek eramaten gaituzte eraldaketa prozesuak sortzera** eta narratiba berriak sortzera, erronka berrien aurrean jarritz.

Entzute faseko ariketatik narratiben analisia egiteko, ondorengo urratsak egin ditugu batetik bestera sakontzen joateko:




Entzute sakonetik jasotakoaren analisia egin ondoren, honako emaitza hauek eskuratu ditugu:

- Euskara eta teknologia aurreratuaren inguruko narratibak hamar gaitan sailkatuta
- Behatutako unibertsoan existitzen diren narratiben araberako profilak

Zentzu emate kolektiboa

Entzute fasean jasotakoa hankamotz geratuko litzateke soilik ikertzaileen analisiaren baitan utziko bagenu. Horregatik, entzute fasean jasotako **narratibei zentzua emateko, horiek taldean interpretatu ditugu** (interpretazio saio kolektiboetan), elkarrizketatzaileek aztertutako eta multzokatutako narratibak kontrastatu eta balioztatzeke. Denon begiradarekin, jaso ditugun narratibei zilegitasuna eta aitortza eman diegu, eta denok bizi dugun errealitatearekin bat datozela baieztatu. Narratibak taldean interpretatuz eta gogoeta partekatua eginez, gainera, prozesuan urrats bat aurrerago joatea lortzen da, pertsonen ahalduntzean aurrerapausoa ematea, hain zuzen ere.

Bi interpretazio saio kolektibo antolatu ditugu, bat elkarrizketen erdialdera, eta bestea amaiera aldera. Interpretazio talde bi horiek ez dira soilik elkarrizketetan parte hartu duten pertsonekin osatu, parte hartzaile berriak ere gonbidatu ditugu, kanpo begiradatik ordura arte jasotako narratibak osatzeko.



Lehenengo interpretazio saio kolektiboa elkarriketen lehenengo errondaren amaieran egin dugu, hau da, 15 elkarriketetan jasotako narratiben analisia egin ondoren.

Bigarren zentzu emate kolektiboa entzute fasearen amaieran egin dugu, entzute ariketan jasotako narratiben analisia eskuetan dugula.

Kosorkuntza


Kosorkuntza fasean elkarrekin aurrera begirako ideiak sortzea izan da egitekoa. Talde Motorreko partaideekin egin da lan saio bat, eta input hauek erabili dira: gaikako narratibak, gaien arteko elkarrenerginen arabeko mapa, profilak, eta entzute osagarritik ateratako input esanguratsuenak.

Input horiek aztertu ondoren, ideazio ariketa bat egin dugu hiru lantalde txikitan, ideia zaparradaren teknika erabiliz (dibergentzia). Ondoren, ideiarik esanguratsuenak hautatu ditugu denon artean (konbergentzia).

Amaieran, denon artean partekatu ditugu hautatutako ideiak, eta indar gehien duten ideiak identifikatzen saiatu gara. Alegia, teknologia aurreratuaren eremuan euskarari prestigioa emango dioten indar-ideiak.

Lan prozesua

Egin dugun lan prozesua eskema orokor batean jaso dugu, ondoko irudi honetan:




Proiektuaren garapenak **hiru fase** izan ditu:

- **Entzute** fasea (2019ko martxotik abendura): ikerketa etnografikoa egin da, diskurtsoak entzun eta interpretatu.
- **Kosorkuntza** fasea (2020ko urtarrila-martxoa): diskurtso berrirako ideia gako batzuk identifikatu dira.
- **Komunikazio** fasea (2020ko apiriletik aurrera): diskurtsoak komunikatzeko plana garatu da, eta bitartekoak eta euskarriak diseinatu eta sortu dira.

Entzute aktiboko metodologiak eskatzen duen moduan, elkarriketak 3 errondatan eta serieka banatuta egin dira.

Serie bakoitzaren amaieran analisia egin da, eta bakoitzeko narratibek aukera eman digute hurrengo serieko elkarriketak birdefinitzeko eta aberasten joateko. Tartean eta amaieran narratibei zentzu emateko ariketak egin dira (interpretazio saio kolektiboak), eta interpretazio saio horietara gonbidatu ditugu elkarriketetan parte hartu duten kideak (barne begirada) eta parte hartu ez dutenak (kanpo begirada modura). Saio horietan batez beste 14 kidek parte hartu dute, eta horietako 6k saio bietan parte hartu dute, eta besteek saio batean bakarrik.



1 Lehenengo fasea

Lehenengo fasean, ikerketa etnografikoko metodoak erabili dira:

- Egituratu gabeko elkarrizketa kualitatiboak (entzute aktiboko metodoak)
- Behaketa etnografikoa eta landa-oharrak
- Audio grabazioak eta argazkiak
- Interpretazio kolektiboak

Ikerketarako laginari dagokionez, hasieran 20 pertsonarekin 26 elkarrizketa egitea aurreikusi bazen ere, azkenean diskurtso eta profil aniztasuna zabaltzeko interesak **lagina** zabaltzea ekarri du: **25 pertsonarekin 32 elkarrizketa** egin ditugu. Hortaz, finean, entzute fasean aurreikusita zegoena baino gehiago sakontzeari garrantzia eta lehentasuna eman diogu proiektuan, Talde Eragilean estrategikoki hala erabakita.

Fase honetan, elkarrizketatu diren 25 pertsonen ahotik jasotako diskurtsoak aztertu dira, eta **narratiba kolektiboak** atera ditugu, **10 gaitan sailkatuta**. Horrez gain, gai bakoitzean **mehatxu/arazo** izan daitezkeen narratibak eta **erronka/aukera** izan daitezkeenak bereizi dira. Era berean, jasotako narratiben eta pertsona ezaugarri ezberdinen arabera, **7 profil** ezberdin sortu dira, erretratu robot erako 7 soslai bereiziz.

Horrez gain, **Entzute osagarria** ere egin dugu lehen fasean: diskurtsoen gaiaren inguruan euskara biziberritzeko sektorean eta teknologiaren arloan sortu diren **albiste eta ideia korronte nagusiak** bildu ditugu, eta horien entresaka bat bigarren faseko kosorkuntza saioan erabili dugu, ezagutza input modura eta inspirazio iturri modura.

2 Bigarren fasea

Bigarren fasean, berriz, **diskurtso berria sortzeko** ideiak landu ditugu lan saio batean, ideia-zaparradaren teknikaren bidez, eta ondoren ideia nagusiak hautatu dira. Horretarako, entzute osagarriko inputez gain, lehen faseko narratiben inguruko analisi sakonagoa eginez atera diren inputak ere erabili dira:

- Euskararen balio positiboak (6)
- Aukera izan daitezkeen narratibak (6)
- Narratiba eraldatzaileak (2)

Fase honetan, 4 profil zehatzetan oinarrituz egin da hausnarketa, profil bakoitzari begirako ideia gakoak landuz. Amaieran **12 ideia gako** atera dira kosorkuntza saioan.

3 Hirugarren fasea

Hirugarren eta azken fasean, komunikazio plana garatu eta gauzatu da. Kultur Atelier komunikazio agentziarekin lankidetzan landu da komunikazio prozesu osoa. Hasteko, lehen fasetik bertatik, Twitter bidez komunikatu dugu proiekturako elkarrizketatu ditugun erakunde eta pertsonen diskurtsoak, mezu laburretan, **traola** baten bidez: [#EuskaraHighTech](#). Guztira 25 txio argitaratu dira sare horretara. Horrez gain, komunikazio planaren baitan, **hainbat euskarri diseinatu eta sortu** dira, komunikazio plataforma baten bidez gizarteratzeko:

- Bigarren fasetik ateratako ideietatik indar handieneko diskurtsoak aukeratu dira, eta horiekin **9 bideo-pilula** sortu dira, teknologiaren sektoreko 9 erakundetako 9 pertsona elkarrizketatuz eta diskurtso ezberdinak bilduz 2-3 minutuko bideoetan. [esteka]
- Proiektuan zehar egin dugun prozesu osoa deskribatzen duen 3-4 minutuko **animazio bideoa** egin da, amaieran ondorioak jasoz. [esteka]
- **7 profilen deskribapen fitxak** sortu eta diseinatu dira, orrialde bakarrekoak, profil bakoitzaren ezaugarriak eta diskurtsoak deskribatuz bertan. [esteka]
- Komunikazio plataforma gisa erabiltzeko **site-aren diseinu-proposamena** ere landuta utzi dugu, noizbait propio ikergai honen inguruko komunikazio plataforma bat sortu nahiko balitz, aprobetxatu ahal izateko.

Proiektuaren garapenetik jaso ditugun onurak eta emaitzak bi eratakoak dira: batetik, prozesuak berak ekarri dituen emaitza eta onura ukiezinak (horiek ondorioetan aipatuko ditugu); eta, bestetik, sortu ditugun edukiak eta produktu ukigarriak.

Entzute prozesuarena izan da proiektu honetan lanik sakonena eta interesgarriena proiektu honetan, eta etengabe bizirik eta irekita egon den prozesua izan da, gainera. Ikus dezagun nolakoak izan diren ikerketaren lagina, partaideak eta lan prozesua:

Lagina eta partaideak

Gure ikergaiaren **unibertsoa** teknologia aurreratuko sektorean parte hartzen duten euskal agente guztiak izan dira abiaburuan. Errealitatea konplexua izanda ere, gure lanerako, **hiru talde nagusitan sailkatu** ditugu agente horiek: Administrazio publikoko eragileak, hezkuntza arloko eragileak, eta zentro teknologikoak eta enpresak.

Gure entzute prozesuko lagin kopurua oso mugatua izan denez, **laginaren nolakotasuna ere mugatu** egin behar izan dugu. Horretarako, proiektuaren jomugan genituen helburuak kontuan hartu ditugu, eta interesatzen zitzaizkigun iturri edo talde jakinetan bilatu ditugu entzute prozesurako partaide hainbat. Ondorengo **irizpide edo premisa hauek kontuan hartu** ditugu lagina aukeratzeko orduan:

- Sektoreko hiru talde nagusietatik, lagin **kopuru handiena zentro teknologikoek eta enpresek** osatzea (erdi eta erdi), bereziki talde horietako diskurtsoak interesatzen zitzaizkigulako, eta xedea ere eurei zuzendutako diskurtsoa berritzea zelako.
- **Euskararen biziberritzearen** inguruan **murgilduta** dabilzan entitateak eta hortik **urruti** dabilzanak egotea ordezkaturak.
- **Geografikoki** ordezkaturak egotea euskal lurralde ezberdinak.
- **Generoaren arabera** laginaren oreka gutxienekoa lortzea.
- **Erdal hitzun batzuk** ere gutxienez ordezkaturak egotea, euskal hitzunez gain.
- **Adinaren** faktorean gutxieneko aniztasuna egotea.
- **Entitateetan zeresana eta botere** maila bat baduten kideak egotea bermatzea.

Irizpide finko horiek kontuan hartuz, 10-15 kideko lagina zehaztu eta hasierako elkarrizketak egin ditugu. Baina, ondoren, **lagin berriak izendatzeko modua** irekiagoa izan da, eta **elur bolaren sistema** erabili dugu (elkarrizketen amaieran galdetzen genien ea nor elkarrizketatuko luketen, eta askotan proposamenak egin dituzte). Hortaz, irizpide jakinen barruan baina **ongoing eran** joan gara definitzen eta birdefinitzen lagina eta elkarrizketa gaiak, metodologiak eskatzen zigun moduan.

Bestalde, lagina aukeratzeko orduan eta kontraste saioetarako pertsonak inplikarazteko unean oso kontuan izan ditugu pertsonak ordezkatzeko zituzten entitateak. Baina, hori hala izanik ere, argi azpimarratu nahi dugu entzute osoan inplikarazi ditugun pertsonak euren iritziak eman dizkigutela, eta ez ordezkatzeko zituzten erakundeak. Beraz, **pertsonen iritziak izan dira eta ez erakundeak**, nahiz eta gehienetan erakundeen onarpena eta inplikazioa izan dugun, bai kideak ikerketan parte hartzeko eta baita sare sozialetan komunikatzeko orduan ere.

Entzute prozesuko **elkarrizketetan ordezkaturak egon diren entitateak** hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Berrikuntza sailburuordetza
- Euskadiko Parke Teknologikoak
- Innobasque

- EHU Ingeniaritza/Arkitektura/Transferentzia eta berrikuntza (3)
- MU Mondragon Goi Eskola Politeknikoa
- IMH Fabrikazio Aurreratuko Zentroa
- Tecnun

- Donostia International Physics Center (DIPC)
- CICnanogunea
- Tecnalia
- Ideko-IK4
- Ikerlan-IK4
- CEIT-IK4
- Gaiker-IK4
- Datik / Irizar Koop. E.
- Elhuyar fundazioa
- Codesyntax
- Everis
- Hiblab S.L.
- Egile S.L.


- Adegì
- Cometel S.A.
- Eika Koop. E.
- Fagor Ederlan Koop. E.
- ITP-Aero

Hauxe da, irudi batean, elkarrizketetarako laginak izan duen ezaugarri multzoa:

Ikerketarako lagina

**25 pertsona
elkarrizketatu**

- Administrazioa 3 (%12)
- Unibertsitatea 5 (%20)
- Enpresa eta zentro teknologikoak 17 (%68)



2.4 SORTUTAKO EDUKIAK ETA PRODUKTUAK

Proiektuaren hiru faseak garatu ondoren, honako emaitza ukigarri hauek dauzkagu eskura (atal honetan zerrendatu egin ditugu, eta labur azaldu, eta emaitzen atalean jaso ditugu emaitzak):

- ✓ **Narratibak 10 gaitan** sailkatuta: teknologia aurreratuko sektorean euskara erabiltzearen inguruko narratiba nagusiak, elkarrizketetan ateratako hamar gairen arabera sailkatuta.
- ✓ **Aukera eta mehatxuen analisia:** gai bakoitzaren inguruan narratiba nagusiak identifikatzeaz gainera, *aukera/erronka* eta *mehatxu/arazo* izan daitezkeen narratibak identifikatu dira.
- ✓ Hamar **gaien arteko elkarreraginaren analisia** egin da, eta lau gai gako identifikatu dira, ondoren kosorkuntzan kontuan hartzeko eta bereziki narratiba horietan jartzeko arreta.

- ✓ **Balio positiboak:** narratiben artean balio positibotzat har ditzakegun sei narratiba nagusiak identifikatu dira.
- ✓ **Aukera diren narratibak:** narratiben artean aukeratzat har ditzakegun sei narratiba nagusiak identifikatu dira.
- ✓ **Narratiba eraldatzaileak:** narratiben artean eraldatzaileenak izan daitezkeen bi narratiba nagusiak identifikatu dira.
- ✓ **Zazpi profil:** behatutako unibertsoan narratiben eta pertsona ezaugarrien arabera existitzen diren profil nagusiak sortu dira. Guztira 7 profil egokitu dira, beren ezaugarri eta narratiba nagusiak jasoz, eta profil bakoitzarentzat metanarratiba bat sortuz. Profilen orrialde bakarreko fitxa laburtuak ere sortu dira, Eusko Jaurlaritzaren webgunean denon eskura jartzeko:

Zazpi horiez gain, aurrera begira ikerketan sakontzen jarraitu nahiko balitz, interesgarriak liratekeen beste profil batzuk ere jaso dira, interpretazio saioetan proposatu dizkigutenak.

- ✓ **Botere harremanen inguruko analisia** eta irakurketa egin da, hobeto ulertzeko sektorean elkarreraginean dauden hiru agente mota ezberdinen arteko indar-eragina diskurtsoetan.
- ✓ **Entzute osagarria:** bi urteko epealdian ikergaiarekin lotura duten gune eta azpisektoreetan egon diren ikerketa, albiste, adituen gogoeta eta ideia korrante nagusien bilduma egin da, eta edukirik mamitsuena testu laburretan bildu.
- ✓ **Etorkizunerako gakoak eta diskurtso berria sortzeko ideiak:** kosorkuntza bidez ideia gako orokor batzuk identifikatu dira etorkizunera begira teknologia aurreratuen sektorean euskarak aurrerapausoak eman ditzan. Horrez gain, ‘mugiarazi’ eta inplikarazi nahiko genituzkeen 4 profili begira diskurtso berria sortzeko ideia gako batzuk identifikatu dira.
- ✓ **Animazio bideoa:** egindako prozesua eta proiektuaren amaierako ondorio orokorrak azaltzen dituen animazio bideoa egin da (3 min), eta Eusko Jaurlaritzaren webgunean denon eskura jarri (lotura)
- ✓ **Diskurtsoen inguruko bederatzi bideo-pilula:** etorkizunera begira enpresak euskara erabiltzera bultzatzeko, gakoak izan daitezkeen diskurtso ezberdinekin 9 erakunde ezberdinetako 9 pertsona grabatu dira, eta bideo-pilula sortu, eta Eusko Jaurlaritzaren webgunean denon eskura jarri (lotura).
- ✓ **Proiektuaren ondorio nagusiak eta aurrera begirako ideia-proposamenak** jaso dira.

3. EMAITZA

Emaizten atalean, azterlanetik jaso ditugun emaitzak eta sortu ditugun edukiak bildu ditugu, azalpen laburrekin lagunduta.

3.1 NARRATIBAK, GAIKA SAILKATUTA

Elkarrizketetatik eta interpretazio saioetatik jasotako narratibak gai multzoen arabera sailkatu ditugu. Guztira hamar gai multzo atera zaizkigu. Beste modu batera esanda, elkarrizketatuek elkarrizketetan zehar 10 gai hauen inguruan hartu dute hizpidea. Hauek izan dira, hain zuzen ere, euren intereseko gaiak “goi teknologia eta euskara” gaiaren inguruan hausnartzera gonbidatu ditugunean:

- ✓ Talentua erakartzea
- ✓ Belaunaldi berriak: etorkizuna
- ✓ Enpresetarako transferentzia
- ✓ Pertsonen arteko harremanak
- ✓ Teknologiaren garapena
- ✓ Ingelesaren nagusitasuna
- ✓ Euskararen kalitatea
- ✓ Enpresen politikak eta interesa
- ✓ Beharra sortzea
- ✓ Kultura partekatzea

Gaikako narratiben fitxak antolatzeko modua hauxe izan da:

- Goialdean, koadroan sartuta, gaiaren inguruan jasotako narratibekin osatu dugun narratiba orokorra eta egin dugun irakurketaren laburpena.
- Azpian, Narratiba nagusiak (N1, N2, N3...); Mehatxu/arazo diren narratibak (M1, M2, M3...); Erronka/aukera diren narratibak (E1, E2, E3...).
- Narratiben azpian, elkarrizketetatik jasotako Aipuak (A1, A2, A3...).

1. TALENTUA ERAKARTZEA

Enpresek orokorrean ez daukate langileak kontratatzekeo hizkuntza politika espliziturik, kontratazioan ez da euskara baloratzen eta beste eskakizun tekniko batzuk dira baloratzen direnak.

Hizkuntza politika zehaztuta duten erakundeek, kooperatibak normalean, langileei euskara motibazio faktore gisa aurkeztu ohi die eta ez derrigorrean bete beharko duten eskakizun moduan. Euskara jakitea talentuaren beste faktore bat da eta euskara jakitea eta erabiltzea garrantzitsua izan daiteke enpresaren helburuetako batzuei erantzuteke, hala nola bezero euskaldunei zerbitzua euskaraz eskaintzeko orduan.

Lanpostu batzuk betetzeko orduan arazoak izaten dira jendea kontratatzekeo orduan, talentu euskaldunak ezin dio talentu beharrari erantzun eta kontratazio eremua gero eta zabalagoa da.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.1. Merkatuan arazoak daude langileak kontratatzekeo eta hizkuntza politika zurrunez zaildu egiten dute kontratazioa. Hizkuntza politikak behar dira baina malguagoak. Langileengana batez ere motibazioaren bidetik iritsi behar gara eta ez derrigortasunetik.

M.1. Kaptazioan zailtasunak daude: enpresen talentu beharra handitu egin da eta ezin da ase dagoen talentu euskaldunarekin.

M.2. Erabateko enpleguaren ondorioz langileak erabakitzen du lana non egin, eta euskara eskatzea muga bat izan daiteke, zenbait hautagai uxatu ditzakeelako.

M.3. Enpresetan euskarak motibatzailea izan behar du baina ez mugatzailea.

E.1. Hizkuntza Politikak sortuta daude eta beharrezkoak dira.

E.2. Euskara jakitea baloratu egiten da lanpostuak esleitzerakoan.

E.3. Euskara bada kaptaziorako amua (unibertsitate eta enpresa batzuetan) eta lan bila doanak baloratu egiten du euskararen eskaintza eta bere garapenerako horrek eskaintzen dizkion aukerak.

E.4. Hizkuntza politika aktiboak baina malguagoak (bir)sortu behar dira eta batez ere sentsibilizazioaren bidean sakondu behar da.

Aipua

A.1 "Lanpostuan lortu beharreko euskara maila lortzeko erraztasunak eman behar dira eta neurriko presioa sortu enpresaren aldetik."

2.-BELAUNALDI BERRIAK: ETORKIZUNA

Ikasketak euskaraz egiteko dagoen aukeraren ondorioz, gazte asko lana euskaraz egiteko prestatuta daude, eta beraz, askoren ustez lan munduaren euskalduntzea berez etorriko da, denbora kontua da. Errealitateak erakusten du baina, gazte euskaldunak lan munduan murgiltzen direnean enpresaren egoerara egokitu behar izaten direla eta gaur gaurkoz lan mundua erdalduna da.

Enpresetan euskara erabiltzen bada norbanakoen kontzientzia eta militantziari esker da, eta ez hainbeste enpresaren politika eta erabakiei esker.

Etorkizunean lana euskaraz egiteko berme eta gakoak ondorengoak izango dira: pertsonen euskararen ezagutza, enpresen politikak, langileek euskararentzako baldintza optimoak sortzea, liderrak eredu izatea, jendeak nahi izatea eta orain arte egindako lana baloratzea.

Euskararen normalizazioan egin denaren transmisio lana egin beharra dago gazteekin balioan jar dezaten eta garenaren identitate sendoa garatu dezaten; eurak dira bihar-etzi gaia traxionatuko duten lider berriak.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.2 Gazteak orokorrean prestatuta daude/datoz lana euskaraz egiteko. Baina lan munduan murgiltzen direnean enpresaren errealitatera egokitzen dira eta enpresen errealitatea, gaur gaurkoz, ez da euskaraz lan egitea.

N.3 Gazteak eleaniztasunean hezi behar dira baina euskararen garrantzia transmitituta.

M.4. Enpresetako liderrak ez dira euskararen kudeaketan lider.

M.5 Euskalduntzean egindako ibilbidearen aitortza falta/txikia.

E.5. Etorkizunerako gakoak/ bermeak izan behar dira: euskararen ezagutza, enpresaren politika, oraingoek baldintzak sortzea, liderrak eredu izatea, jendeak nahi izatea eta orain arte egindako lana baloratzea.

E.6. Belaunaldi berriak lider berriak izango dira

E.7 Euskararen normalizazioan egindakoaren perspektiba transmititu behar zaie gazteei, etorkizuneko erronkak definitzen laguntzeko.

E.8 Gazteengan euskararekiko jakin-mina sortu beharra dago, garenaren identitate sendoa izateko.

Aipua

A.2 “Enpresan euskara izango bada, arlo guztietan dagoelako izango da. Dagokion maila eman ezean, gehiegi murrizteko arriskua dago. Hortaz, politika aktiboak jarri behar dira.”

A.3. “Gazteekin aukera handia dago lan munduan euskara erabiltzeko: erabilera bultzatzeko eginkizunetan liderrak izan behar dute.”

3.-ENPRESETARAKO TRANSFERENTZIA

Lehentasuna bikaintasun teknikoak dauka eta hizkuntza bigarren maila batean dago eta egongo da. Hala ere, dagoen potentziala aprobetxatzeko, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresa pribatuek inizatiba propioz sustatu beharko lukete euskara beraien zentroetan.

Unibertsitateak prestatuta daude enpresen eskariei euskaraz erantzuteko baina ez da eskaerarik egoten orokorrean euskaraz egiteko.

Administrazioak adierazleetan euskararen erabilera saritu beharko luke, euskaraz egiten dena saritzeko eta gehiago egitea bultzatzeko.

(Batez ere enpresetako eta zentro teknologikoetako ordezkariak egiten dute bat aldarrikapen honekin. Administrazioak erakundeek ez dute ikusten pizgarrien aukera sustatu beharrik.)

Narratibak

N.4 Unibertsitateetatik eta zentro teknologikoetatik ahalegin berezia egin behar dute euskara sustatzeko, ez baita dagoen potentziala aprobetxatzen. Horretarako, bide bat izan daiteke erakunde publikoek pizgarriak jartzea ikerkuntza euskaraz egin dadin.

Aipua

A.4. “Unibertsitateak euskara sustatzen jarraitu behar du, ikerketa arloan eta gradu amaierako proiektuak euskaraz egin daitezen, eta terminologian ekarpena egiten.”

Mehatxuak eta arazoak

M.6 Zentro teknologikoek daukaten potentziala ez da aprobetxatzen: ez zaio garrantzirik ematen euskara bultzatzeari; lehentasuna bikaintasun teknikoak dauka.

M.7 Enpresek ez diote eskaerarik egiten unibertsitateari euren beharrei euskaraz erantzuteko.

Erronkak eta aukerak

E.9 Eduki espezifiko/teknikoak enpresan bertan eskuratzen dira eta euskaraz ere egin daiteke

E.10 Unibertsitatea bere euskarazko eskaintza handitzeko gai da.

E.11 Administrazioak (EJ) ikerkuntza adierazleetan euskararen erabilera saritu beharko luke.

E.12 Unibertsitatearen prestasuna dago enpresen beharrei euskaraz erantzuteko.

4.-PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK

Pertsonen arteko lan harremanak gaztelaniaz dira nagusiki.

Laneko harremanetan euskaraz egitea hautu naturala izan behar da. Beste faktore batzuekin batera, euskarak eragin positiboa dauka langileen arteko kohesioan, bezeroarekiko harremanetan eta enpresarekiko atxikimenduan indartzen laguntzen du; gertutasuna eta konfiantza sortzen dira eta horrek balio erantsia eman diezaioke erakundeari.

Euskara ez jakitea oztopo soziala izan daiteke, baina ez da oztopo teknikoa lanerako.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.5 Euskara softwarean integratu behar da baina nagusiki pertsonen arteko harremanetan jokatu da hizkuntzaren auzia.

M.8 Teknologian euskara ez jakitea ez da oztopo teknikoa.

M.9 Euskara inposizioarekin lotzeko tentazioa.

M.10 Kolektiboaren jatorria geografikoki gero eta zabalagoa izan, orduan eta enpresarekiko atxikimendua txikiagoa da.

E.13 Euskarak langileen kohesioa eta enpresarekiko atxikimendua indartu dezake.

E.14 Bezeroekin harremanak euskaraz izateak, hurbiltasuna handitu dezake.

Aipua

A.5 “Enpresa barruan euskaraz egitea zerbait naturala izan behar da, ezin da inposatutako zerbait izan.”

A.6 “EHko bezeroek eskertzen dute harremana euskaraz izatea. Nabaritzen da harremanen jariorasunean, enpatia ematen da, feelina sortzen da.”

A.7 “Euskaraz egiteak, harremanetan konfiantza ematen du. Sentimendu bat dago komunean, aberri baten parte egiten gaituen sentimendu bat.”

5.-TEKNOLOGIAREN GARAPENA

Etorkizuneko teknologia eleanitza izango da eta euskara ere egongo da teknologia horietan. Beharrezkoa izango da erakunde publikoen laguntza eta ikuspegi estrategikoa etorkizuneko teknologia horietan euskara ere egon dadin beste hizkuntzekin batera. Itzulpen sistema automatikoeak asko erraztuko dute interlokutoreen arteko komunikazioa, izan pertsonak, makinak...

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.6 Etorkizuneko teknologiak (zenbakiak, kodeak, ahots komandoak, sinboloak, itzulpena automatikoa...) aukera ona eskainiko du hizkuntzak txertatzeko.

N.7 Orain arte egindako lanaren ondorioz oinarri sendoa (corpusa, tresnak, baliabideak...) daukagu teknologia berrietan euskara txertatzeko..

Aipua

A.8 "Sortuta dagoen teknologia hartu, hobetu eta egokitzen oso onak gara Euskal Herrian eta hor aukera handia dago tresnetan euskara txertatzeko."

A.9 "Administrazioak dirua jarri behar du (teknologia erosi, erakundeen eskura utzi, erakundeei dirua banatu) eta teknologia erabili egin behar du. Ondorioz, euskarari prestigio soziala emango dio teknologia hori erabilia."

M.11 Euskaraz dagoen teknologia erabiltzeko estrategia eta plan zehatzen falta dago. Epe luzeko ikuspegia falta dago erakunde publikoen aldetik.

M.12 Euskarazko tresnen merkatua txikia da eta nahitaezkoa da erakundeen laguntza.

E.15 Euskarak tresna eta teknologia euskarrietan egon behar du batez ere komunikatzeko diren tresnetan: aldibereko itzulpen sistemak, sare sozialak...

E.16 Etorkizuneko teknologietan eleaniztasunak lekua izango du eta dauden aukeretan txertatu behar da euskara ere.

E.17 Administrazioa teknologia erosi erabili eta erabilarazi behar du.

6.- INGELESAREN NAGUSITASUNA

Teknologian derrigorrezko hizkuntza eta balio erantsia ematen duena ingelesa da. Ikerketa euskaraz egiteak ez du ekarriko ikerketa zentro hobe izatea. Hala ere, euskarak balio dezake ikerketa-taldea sendotzeko eta kohesionatzeko.

Ikerketa-taldea geografikoki zabaltzen den neurrian, euskararen presentzia murriztu egiten da. Argitalpenak ingelesez argitaratzea ezinbestekoa den arren, garrantzitsua litzateke tesiak euskaraz ere egotea, euskarazko corpusak behar ditugulako.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.8 Teknologia hizkuntza ingelesa da eta hala onartzen da; derrigorrezkoa da, ez da aukera bat.

Aipua

A.10 “*Talentu bila (ikasle bila) estatura zabaldu garen neurrian, beti izango dugu euskara ulertzen ez duenik, eta beraz, gaztelaniak jarraitu egingo du gure eskaintza, ikerketa, ...baldintzatzen.*”

A.11 “*Balio erantsia ingelesak ematen du, ez euskarak; ezta gaztelaniak ere.*”

M.13 Eleaniztasunean euskarak garrantzia galtzeko arriskua du.

M.14 Talentu bila (ikasleak, langileak...) estatura zabaltzearen ondorioz beti egongo da euskara ulertzen ez duen norbait. Eta horrek baldintzatu egiten du euskararen presentzia.

E.18 Euskarari funtzio zehatzak eman behar zaizkio garrantzia galdu ez dezan. Gutxienez euskaldunen artean lan hizkuntza izatea.

E.19 Prestigiosko argitalpenak ez bezala, tesiak euskaraz egin daitezke.

7. EUSKARAREN KALITATEA

Kalitatezko euskara lortzeko oinarria hezkuntzan dago (oinarrizko heziketa, unibertsitatea, ...) eta hor zaindu eta landu behar da. Dena den, erabilera da euskara normalizatuko duena eta benetako balioa emango diona euskarari.

(Kezka hau dutenak dira batez ere, Unibertsitateko ordezkariak eta Zentro Teknologikoetako euskaltzaleak).

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.9 Kalitatezko euskararen abiapuntua hezkuntzan dago eta erabilerak ekarriko du kalitatean hobetzea.

M.15 Unibertsitateetan irakaste askok ez du euskara ondo menderatzen.

M.16 Gaztelaniazko terminologia garatuta dago, ingelesez dagoena gureganatzeko esfortzua egiten ari gara. Euskara ordea gaztea da teknologian eta atzetik goaz.

E.20 Jende oso ona dago euskaraz lan egiteko prest dagoena.

E.21 Euskarazko teknologiaren dibulgazio mediatikoa baliagarria da formaziorako materiala sortzeko, oinarri sendoa izateko.

E.22 Gakoetako bat hezkuntza da: irakasteko/ikasteko moduak aldatu egin behar dira kalitatezko euskara bermatzeko.

E.23 Euskarazko termino teknikoekiko naturaltasuna erabilerarekin etorriko da.

Aipua

A.12 “Teknologia munduan euskararen kalitatearekin zorrotzagoak izan beharko genuke, ingelesarekin bezala. Bestela, euskaldunek ere gaztelaniara joko dute.”

A.13 “Langile gazte berriek eskolatik ekarri beharko lukete kalitatezko euskara.”

A.14 “Lana kalitatez egin behar da: edukia eta hizkuntza, biak menperatu behar dira ondo. Hizkuntzak laguntzen badu gauzak ondo egiten, balio erantsia izango du.”

8. ENPRESEN POLITIKAK ETA INTERESA

Enpresek ez dute euskara sustatzeko aparteko interesik. Euskarak aurrera egingo badu enpresek benetako interesa izan behar dute. Euskara bultzatzeak ekarriko lizkiekeen onurak (irudia, giro soziala, komunikazioa, produktibitatea, identitatea,..) sakonago aztertu eta horretan lagun dezaketen politikak martxan jarri beharko lituzkete, politika argi, malgu eta motibatzaileak. Enpresa eredu berriak euskararen erabilera sustatzeko marko egokia eskaintzen du; gizarte erantzukizuna, berrikuntza politikak...

Narratibak

N.10 Euskarak aurrera egingo badu, erakundeek benetako interesa izan behar dute. Sinesten ez bada, kanpotik behartzea ez da eraginkorra izango.

N.11 Euskara ez da gakoa salmentak gehitzeko baina euskarazko produktu/zerbitzuen eskaintza balioan jarri behar da.

N.12 Hizkuntza garrantzitsua izan daiteke baina lan teknikoak ondo egitea da benetan garrantzitsua.

N.13 Euskara garatzeko hizkuntza politikak beharrezkoak dira; politika argiak, malguak, inposatu gabeak eta motibatzaileak.

N.14 Enpresek langileen euskaraz lan egiteko nahiari erantzun behar diote.

Aipua

A.15 "Hainbat enpresek (kooperatibek eta gipuzkoarrek batez ere) ahalegin berezia egiten dute euskara sustatzeko."

A.16 "Gizartean euskararekiko inplikazioa apaldu egin da eta hori lanean ere nabari da. Euskaraz egiten den apurra eremu informalean egiten da."

Mehatxuak eta arazoak

M.17 Zentro teknologikoek daukaten potentziala ez da aprobetxatzen: ez zaio garrantzirik ematen euskara bultzatzeari.

M.18 Euskara eremu informalarekin bakarrik lotzeak bere garapena mugatzen du.

M.19 Nazioartean dabilzan enpresek zailago dute euskararen erabilera normalizatzea, baita Euskal Herriko lantokietan ere.

M.20 Lan munduan euskara normalizatzeko emandako urratsetan atzera egiteko arriskua dago. Zaurgarriak gara.

M.21 Hizkuntza politika zorrotzek langileak banandu ditzakete.

A.17 "BASQUE INDUSTRY 4.0 markan ez da euskara publikoki azaltzen."

A.18 "Euskara gure marka da, egiten duguna gizarteratzeko eta talentua erakartzeko erabiltzen dugu, eta funtzionatu egiten du."

Erronkak eta aukerak

E.24 Enpresa eredu berriek, euskararen erabilera sustatzeko marko egokia eskaintzen dute.

E.25 Euskaldunek euskaraz lan egin/ ikasi ahal izatea baloratzen eta aukeratzen dute.

E.26 Euskara berrikuntza politiketan sartu daitekeen gaia da.

E.27 Enpresek gizartearekiko duten erantzukizunean ekarpena egiteko lan ildoak izan daiteke euskara.

E.28 Enpresetako arnaguneak zaindu eta hedatu behar dira.

E.29 Euskara bultzatzeak ekarriko lizkiekeen onurak (marka, irudia, giro soziala, komunikazioa, produktibitatea, identitatea...) sakonago aztertu beharko lituzkete enpresek.

9. BEHARRA SORTZEA

Enpresaburu askok ez dute lan munduan euskara landu beharrik ikusten, eta lantzekotan, bereziki Euskal Herriko merkatua duten enpresek landu behar dutela uste dute. Gainera, gizartean asko lortu denaren sentsazioak ez du laguntzen urratsak ematen eta garatzeko eremu berriak identifikatzen.

Hainbaten ustez, berriz, euskara lan munduan indartzeko, beharra sortu egin behar da; Administrazioak euskara sustatzeko bide berriak aztertu behar ditu; onura fiskalak, pizgarriak, enpresen arteko esperientzien trukea,...

Ez dago bezero edo erabiltzaileen aldetik euskarazko produktu edo zerbitzuen eskari nahikorik. Enpresek, langileek euskaraz lan egiteko duten nahiari erantzun behar diote.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.15 Administrazioaren diru-laguntzak jasotzeko, zentro teknologiko eta unibertsitateek ez dute eskakizunik proiektuak euskaraz aurkezteko.

N.16 Administrazioak euskara sustatzeko bide berriak aztertu behar ditu: onura fiskalak, enpresen arteko esperientzien ezagutza trukea...

N.17 Ez dago argi euskarak produktuari ematen dion balio erantsia zein den. Aldiz, errazago lotzen da euskara zerbitzuaren balio erantsiarekin.

Aipua

A.19 “Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak lortzeko proiektuak aurkezten direnean, gaztelaniaz aurkezten dira orokorrean.”

A.20 “Globalizazioaren garai honetan euskara garatzeko eremuak hauek dira: lokala, lagunartea eta kalea.”

M.22 Ez da behar beste errekonozitzen euskaraz egindako lana. Hutsune handia dago sektoreetan (enpresen artean, unibertsitateen artean...).

M.23 Enpresen globalizazio testuinguruan, euskara garatzeko eremu berriak identifikatzeko zailtasunak daude.

M.24 Ia dena egin denaren usteak, urratsak ematea mugatzen du eta norbanakoak desaktibatu ditzake.

M.25 Bezero askok ez dute euskarazko produktu/zerbitzurik eskatzen.

A.21 “Gizarteari euskararen aukera eskaintzea da garrantzitsua, erabiltzaileen kopuruan fokua jarri gabe.”

E.30 Deialdi publikoen puntuazio teknikoetan euskararen erabilera puntuatu liteke. Ondorioz, prestigio soziala indartu eta egindako ahalegina errekonozituko litzateke.

E.31 Euskaraz garatutako proiektuak errekonozitzeko bideak eta aukerak zeintzuk izan daitezkeen aztertu behar dira.

E.32 Bezero-hornitzaile harremanetan euskara sustatzeak eragin biderkatzailea du.

10. KULTURA PARTEKATZEA

Pertsona batzuek euskara elementu kultural gisa ulertzen dute eta uste dute kultura sustatzea ez dela enpresaren egitekoa.

Beste batzuen ustez aldiz, enpresen egitekoa izan behar da helburu ekonomikoez gain euskara sustatzea ere, besteekiko desberdin egiten gaituzten balio batzuk aitortzen dizkiotelako euskarari.

Gainera, euskal identitateak/kulturak dituen balioak eta gaur egungo enpresa eredu berriek eskatzen dituzten ezaugarriak (lana, esfortzua, talde-lana, eraginkortasuna, ...) bat datoz.

Kanpotik datozeinei gure kulturen / euskararen murgiltzeko interesa sorrarazi behar zaie, eta lan munduan ere egin liteke hori, lan mundua gizartearen zati eta isla den neurrian.

Narratibak

Mehatxuak eta arazoak

Erronkak eta aukerak

N.18 Helburu ekonomikoez gain, enpresen helburua izan behar da kultura sustatzea, tartean euskara. Lan mundua gizartearen isla da.

N.19 Enpresen egitekoa ez da kultura sustatzea.

Aipua

A.22 “Enpresen egitekoa ez da kultura sustatzea: enpresaren berezko helburuetatik aldendu ginateke.”

A.23 “Hiru ezaugarri hauek gehiago landu behar ditugu: lankidetzaren handiagoa izatea, kulturalki irekiagoak izatea eta gure balioak mantentzea.”

M.26 Enpresen egitekoa soilik enpleguan eta aberastasunean ekarpena egitea dela uste dute enpresari askok.

M.27 Harreman komertzialetan bestearen hizkuntza eta kulturarekiko ezezagutza oztopo da.

E.33 Kanpotik datozeinei gure kulturen / euskararen murgiltzeko interesa sorrarazi behar zaie, inposatu gabe.

E.34 Euskal identitateak/kulturak dituen balioak eta gaur egungo enpresa eredu berriek eskatzen dituzten ezaugarriak (esfortzua, talde-lana eta eraginkortasuna) bat datoz.

E.35 Kooperatiben munduan euskararekiko sentsibilizazioa garatuago dago.


E.36 Pertsona etorkinen integrazioa lan munduan euskaratik egitea positiboa izan daiteke alde guztientzat (pertsonek, enpresak eta Administrazioak).

3.2 GAIEN ARTEKO ELKARRERAGINEN ANALISIA

Jasotako narratibak ugariak eta askotarikoak izanik, kosorkuntzan jarduteko unean komeni izan zaigu jakitea gai multzoen artean zein ziren pisuzkoenak edo garrantzizkoenak. Horretarako, gaien artean aurkitu ditugun **elkarreraginak baloratu eta haztatu** egin ditugu tresna digital baten bidez. Ondoren, azpiko irudia sortu dugu: gairik esanguratsuenak edo eragin handiena dutenak dira irudian dimentsio handiagoa dutenak. Lau **gairik estrategikoenak**, beraz, hauek dira, garrantziaren hurrenkeran zerrendatuta:

- ✓ Enpresen politikak eta interesa
- ✓ Beharra sortzea
- ✓ Pertsonen arteko harremanak
- ✓ Belaunaldi berriak: etorkizuna

Hortaz, gure ustez, **lau gai** horien **inguruan gaur** egun dauden eta **etorkizunean** sortuko diren **narratibak eta ekinbideak gakoak izango dira** eta pisu espezifikoak izango dute sektorearen euskalduntze prozesuan. Sektore teknologikoan euskarak prestigioa irabazi behar badu, zirkulazioan jarri behar ditugun ekinbideek eta diskurtsoek korapilo horiek askatzen lagundu beharko lukete.



3.3 NARRATIBAK, PROFILKA SAILKATUTA

Zazpi tipologia ezberdinetako profilak identifikatu ditugu, jasotako narratibak aintzat hartuz. Profil bakoitzari **fikziozko izen bat** jarri diogu, eta **ezaugarri batzuk** definitu dizkiogu, behatu dugun ekosistemarekin koherentzian. Profil eta pertsona soslai bakoitzari narratibak jarri dizkiogu, eta bere diskurtsoa laburbilduko lukeen **metanarratiba** bat definitu diogu.

• <u>Administrazioko ordezkaria</u>		NEREA 53 urte, Bilbo
• <u>Unibertsitateko irakaslea</u>		IBAN 51 urte, Andoain
• <u>Enpresako arduradun euskalduna</u>		JUAN MARI 53 urte, Zornotza
• <u>Enpresako arduradun euskara-sustatzailea</u>		IÑAKI 49 urte, Eibar
• <u>Lanean euskaldundua</u>		MARTA 42 urte, Gasteiz
• <u>Enpresaburu erdalduna</u>		JAIME 63 urte, Durango
• <u>Enpresaburu erdaldun euskara-sustatzailea</u>		JOSE LUIS 52 urte, Gasteiz

Nerea (Administrazioako ordezkaria)



53 urte, Bilbo / Iana Zamudion
(3 kiderekin osatutako profila)

**“Erakunde publiko bat gara,
euskalduna, eta euskara da gure
erronka; baina enpresen beharren
mende gaude, eta euren
beharretara moldatu behar gara”**

EZAUGARRIAK

- Unibertsitate ikasketak ditu, eta lidergoan eta berrikuntzan prestatuta dago.
- Enpresa munduan ibilbide profesionala egindakoa da.
- Erakunde publikoetan kargu ezberdinak bete ditu eta politika arloa ondo ezagutzen du.
- Euskal hiztuna da, baina ez du euskaraz lan egiten eta gaztelaniaz bizi da batez ere egunerokoan.

KEZKAK

- Hemengo enpresak arrakastaz nazioartekotzea garrantzitsua dela uste du.
- Enpresek euskara bultzatzearen arloan izan dezaketen iritziak kezkatzen du. Galdetu egin behar zaiela uste du.

Teknologiaren garapena

- Itzulpen automatikoak bidea erraztuko du.

Belaunaldi berriak: etorkizuna

- Gero eta gehiago entzuten da euskara. Gazteak euskaldunduta datoz unibertsitatetik eta etorkizunean ezagutza bermatuta dago.
- Jende oso ona dago euskaraz lan egiteko prest dagoena.
- Belaunaldi berriak eleaniztasunean hezi behar ditugu baina euskararen garrantzia transmitituta, identitatearekin lotuta. Etorkizunean gehiago egingo da euskaraz.

“Sortuta dagoen teknologia hartu, hobetu eta egokitzen oso onak gara Euskal Herrian eta hor aukera handia dago euskara txertatzeko”

“Euskara barne harremanetarako hizkuntza da, eta balio soziala dauka, baina ez dauka balio teknologikorik; ingelesa da ikerketa teknologikorako hizkuntza nagusia”

“Nazioartekotzea indartsua da, eta ingelesez hobeto hezi behar ditugu gazteak”

Ingelesaren nagusitasuna

Enpresen politikak eta interesak

- Enpresen interesaren arabera izango da euskarak teknologia aurreratuetan izango duen aurrerapena.
- Ez da ezagutzen zein den euskararen egoera enpresetan eta zer interes daukaten euskara bultzatzeko; hori jakin ezean, ezin da askorik egin.

- “Enpresa handi askok erabakigunea Euskal Herritik kanpo dute, eta ez dute aparteko interesik bertoko hizkuntza sustatzeko”
- “Administrazioak laguntzak bermatu behar ditu, baina enpresek eurek jarri behar dute euskara praktikan”

Beharra sortzea

- Administrazioak laguntzak emateko bide berriak aztertu behar ditu: onura fiskalak, enpresen arteko esperientzien ezagutza- trukea...

- “Nazioartera begira ezin dugu euskara erabili. BASQUE INDUSTRY 4.0 markan ez da euskara publikoki azaltzen”

Kultura partekatzea

- “Kanpotik datozeinei gure kulturen/ euskararen murgiltzeko interesa sorrazi behar diegu, inposatu gabe.”
- “Indartu behar dugu hiru arlo hauek uztartzea: lankidetzaren handiagoa izatea, irekiagoak izatea eta gure baloreak mantentzea”

Iban (unibertsitateko irakaslea)



51 urte, Andoain / Iana Donostian
(5 kiderekin osatutako profila)

“Ingelesak gora egingo du, oro har, unibertsitatean, baina horrek ez du zertan izan euskararen kaltetan”

EZAUGARRIAK

- Fakultate bateko irakaslea da eta jakintza arloren bateko zuzendaritza taldean dago.
- Ingeniaritza ikasketetan espezializatu da eta doktorea da.
- Euskararekin konprometitu dago eta arlo zientifiko eta teknologikoan euskararen aldeko lanean aktiboki jardun izan du, kongresuak antolatzen, IXA taldean, UEUrekin elkarlanean...
- Euskaraz lan egiten du ahal duen guztietan.

MOTIBAZIOAK:

- Irakasle asko daude erretiratzeko atarian, eta hori aukera modura ikusten du.

KEZKAK

- Euskararen kalitatearekin kezkatuta dago, eta gazteek hobeto idazteko ardura hartzea gustatuko litzaioke.
- Euskaraz ikasten duten ikasleak gero lan munduan erdaraz lan egitera pasatzen dira.
- Unibertsitatean euskara garatu ahal izateko enpresen eskaera falta dela sumatzen du.

Talentua erakartzea

Belaunaldi berriak: etorkizuna

- Ikasleek ikuspegi kritikoa izateko bokazioa galdu da unibertsitatean.
- Terminologia teknikoa garatu da, baina gehiago garatu beharra dago: publikazioak, tesiak, Gradu Amaierako Proiektuak...

“Ikasketak euskaraz garatzeko interesa partikularra da batez ere; norberaren sentsibiltatearen baitan egoten da tesia euskaraz egin ala ez, proiektua zein hizkuntzatan garatu, ... eta sistemak ez du laguntzen”

Enpresetarako transferentzia

Pertsonen arteko harremanak

- Euskararen garapena ez da etorriko teknologien garapenetik berez, baizik eta teknologia lantzen diharduten pertsonen arteko harremanak euskalduntzetik.

“Unibertsitate eta enpresen arteko lankidetzaren eraginkortasuna txikia da euskara kontuetan. Unibertsitatea gai da zerbitzua euskaraz emateko (praktikak, proiektuak...) baina enpresen aldetik ez dago eskaririk.”

Teknologiaren garapena

- Hizkuntza interakzioa gero eta txikiagoa izango da teknologietan, baina horrek ez du zertan euskararen kalterako izan.

“Berrikuntza eta zientzia unibertsalak dira. Ez da hizkuntza zehatz batean ikertzen, guztiak erabiltzen dira egin behar denaren arabera.”

Ingelesaren nagusitasuna

Euskararen kalitatea

- Euskararen kalitatea zaindu behar da, ikasle nahiz irakasleena, eta hor unibertsitateak badu zereginik eta zer hobeturik.

“Ikerketa hizkuntza ingelesa da eta zenbat eta ingeles gehiago erabiltzen dugun guretzat hobe, hori puntako ikerketa eta nazioarteko proiektuak duena egiten dugun erakusle izango baita; unibertsitateen nazioartekotze estrategiari erantzuten dio horrek”

Beharra sortzea

- Administrazioak laguntza ematen jarraitu beharko luke: barne erabilerarako eskuliburuak sortzeko eta sustatzeko, ikertzaile eta ikasle euskaldunek gaztelaniara edo ingelesera jo beharrik izan ez dezaten.

“Euskaraz oso gaizki idazten da. Ikasle nahiz irakasleak formatu egin behar dira, eta arazoa ez da euskara teknikoan dugun maila, oportetean zer egin duen modu onargarrian idatziz jartzeko ere arazoak dituzte askok”

Enpresen politikak eta interesa

“Kalitatearekin zorrotzagoak izan beharko genuke, ingelesarekin zorrotzak izaten garen moduan. Euskaraz gaizki idatzita lortzen dugu euskaldunak ere gaztelaniara joatea.”

“Gauza ofiziosoetarako euskara erabiltzen da zenbait bezerorekin, baina bilera formaletan eta arlo idatzian euskara gutxi erabiltzen da”

“Ikerketa baten helburuak tekniko-zientifikoak izaten dira eta hizkuntza tresna bat da, ez da helburu; bigarren mailan geratzen da hizkuntza”

“Enpresaren marka euskararekin lotzeak dakartzan onurak sakon aztertu beharko lituzkete enpresek, gizarte hobe baterako egiten duten ekarpenaren ikuspuntutik”

Juan Mari (enpresako arduradun euskalduna)



53 urte, Zornotza/ Iana Donostian
(5 kiderekin osatutako profila)

“Euskarak laguntzen du harremanetan. Baina ez dugu euskararen beharrik sentitzen gure lanerako. Euskarak ez digu balio ikertzeko eta saltzeko, eta barruan batik bat gaztelaniaz dira harremanak”

EZAUGARRIAK

- Goi-mailako ikasketak, masterra eta doktore tesia ditu.
- Teknologia arloko ikerketan eta proiektuen garapenean jarduten du.
- Kudeaketa arloko ardura postu batean dihardu.
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka.
- Nazioarteko proiektuekin lan egiten du sarritan.
- Arlo formaleko bere lanaren zati handi bat ingelesez egiten du, eta beste zati bat gaztelaniaz.
- Ahal duenean, ahoz eta idatziz euskaraz komunikatzen da, enpresa barrukoekin eta kanpokoekin.

MOTIBAZIOAK

- Orain unibertsitatean ikasketak euskaraz egiteko aukera zabala izateak poztzen du.

KEZKAK

- Ikertzaileentzat baldintza egokiak sortu nahi ditu.
- Gazteak ez ditu ikusten euskararen aldeko jarrera aktiboarekin.
- Zail ikusten du etorkizunean euskarak tokia izatea zientzia eta teknologia esparruan.
- Bere enpresa aurrera ateratzeaz arduratzen da.

Talentua erakartzea

Belaunaldi berriak: etorkizuna

- Unibertsitatea asko aldatu da. Orain ikasketak euskaraz egiteko aukera dago.

- Talentua (ber)erakartzeko baldintza egokiak sortu behar dira, beraien ibilbide profesional oparoa euskal enpresetan egin dezaten”.

Teknologiaren garapena

- Gero eta gehiago dira teknologietan bestelako hizkuntzak txertatzeko erraztasunak eskaintzen dituztenak

- “Euskarak teknologian duen erabilera txikia ez da oso kezagarria; bai, ordea, aisialdi guneeetan ez

Ingelesaren nagusitasuna

Euskararen kalitatea

- Teknologia munduan kalitatezko euskara bultzatu behar dugu, ez bultzatu bultzatzeagatik.

- Ikerketa lan teknikorako hizkuntza ingelesa izan behar da. Pertsonen arteko harremanetarako erabili behar da euskara”.

Enpresen politikak eta interesa

- Lehiakortasunak eta euskarak ez daukate loturarik.
- Enpresa barruan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea ona da, beti ere lana hobeto egiteko baldin bada.

- Unibertsitateko irakasleen euskara gaitasuna hobetu beharra dago. Beste hezkuntza eredu bat behar da: edukien ordez gaitasunak, harremanak... sakondu behar dira.”

Pertsonen arteko harremanak

- Langileen artean euskararekiko inplikazioa apaldu egin da eta hori lanean ere nabari da. Euskaraz egiten den apurra eremu informalean egiten da.

- “Lan munduan euskara erabiltzen duten gehienak gipuzkoarrak dira”.
- “Lana kalitatez egin behar da: edukia eta hizkuntza, biak, menderatu behar dira. Hizkuntzak laguntzen badu gauzak ondo egiten, balio erantsia izango du”.

Beharra sortzea

- Gizarteari euskararen aukera eskaintzea da garrantzitsua, erabiltzaileen kopuruan fokua jarri gabe.
- Orokorrean enpresek ez dute eskatzen proiektuak euskaraz garatzeko.

- Enpresen hornitzaile diren aholkulari txikietan euskara sustatzeak, efektu biderkatzailea izango luke.”

Kultura partekatzea

- Kultura ezberdinetako pertsonen arteko harremanetan, hizkuntzaz aparte, kultura ere oztopo handia izaten da.

- Euskaraz hitz egiten dugun pertsonak kultura berekoak izanik, harremanak errazten ditu, oztopo bat gutxiago”

Iñaki (enpresako arduradun euskara sustatzailea)



49 urte, Eibar / Iana Arrasaten
(6 kiderekin osatutako profila)

“Enpresa teknologikoen arloan ez zaio euskarari eman beharko litzaiokeen garrantzia ematen. Potentziala galtzen ari da”

EZAUGARRIAK

- Unibertsitate ikasketak, masterrak eta doktorego tesiak egindakoa da.
- Ikerketan jarduten du bere lanaren zati batean.
- Kudeaketa lanak ere tokatzen zaizkio, eta ardura postu batean dihardu urtetan.
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du teknologia arloko sektorea.
- Bere lanaren zati bat ingelesez eta gaztelaniaz egiten du, baina euskaraz egiteko aukerak aprobetxatzen ditu eta aktiboki euskara bultzatzen saiatzen da ahal duen neurrian.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Ikertzaileentzat baldintza egokiak sortu nahi ditu.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.
- Euskaraz egiten diren ikerketa gutxi horiek euskaraz gizarteratu beharra sumatzen du (Teknopolis, Ekaia eta Elhuyar aldizkariak...).

Talentua erakartzea

- Arazo orokorra da. Ikertzaileen eskaera handia dago eta oso profil zehatzak bilatzen dira, eta asko atzerritik datoz.
- Baldintza berdinetan, gazte euskaldunarentzat plus bat da euskaraz lan egiten duen enpresa batean lan egitea

Enpresetarako transferentzia

- Ezagutza zehatzak enpresan bertan transmititzen dira (intraformazioa); hori euskaraz balitz, erabilera ere beste bat litzateke.

Belaunaldi berriak: etorkizuna

- Gazteek ikasketak eta lana euskaraz egiteko aukera dago. Ikerketa zentroetan ikertzaile euskaldunak formatuta, enpresetan euskaraz lan egiteko aukera handiagoak sortuko lirateke.

Teknologiaren garapena

- Posizionamendu digitalak eta itzulpen automatikoak lagun dezake euskara zabaltzen.
- Euskara teknologietan txertatu behar da, eta orain da aukera paregabea: oinarri sendoa dago (corpusa, tresnak, baliabideak...).
- Etorkizuneko 4.0 tresnetan, kodeak, sinboloak eta zenbakiak izango dira. Hor hizkuntzak garrantzia gutxiago izango du.

Ingelesaren nagusitasuna

- Euskara 2. mailako hizkuntza da eta ingelesa baloratzen da lanerako, gero eta gehiago.

- “Teknologia munduko terminologia euskaraz landu behar da eta horretan gehiago inbertitu. Software librea euskaraz eta ahots komandoak euskaraz landu behar ditugu”. “Erakunde publikoek software librearen aldeko apustua egingo balute, ez ginateke egongo multinazionalak garatzen dituzten teknologien menpe egongo”. Administrazioak prestigio soziala eman beharko lioke euskarari, euskarazko teknologia erosita eta erabilia”

- “Balio erantsia ingelesak ematen du, ez euskarak; ezta gaztelaniak ere. Ez gara ikerketa zentro hobeak izango euskaraz egiten dugulako.”

Euskararen kalitatea

- Euskarazko teknologiaren dibulgazio mediatikoa baliagarria da formaziorako materiala sortzeko, oinarri sendoa izateko.

Enpresen politikak eta interesa

- Hainbat enpresak (kooperatibek eta gipuzkoarrek, batez ere) ahalegin berezia egiten dute euskara sustatzeko.
- Merkatu lokalean euskarak lagundu egiten du enpresa lehiakorragoa izaten.
- Euskarari funtzio zehatzak eman behar zaizkio. Gutxienez pertsonen arteko harremanetan egon beharko litzateke.

- “Termino teknikoek naturaltasuna erabilerarekin lortuko dugu. Langile gazte berriek etxetik ekarri beharko lukete (enpresetara)”.

- Geroz eta garrantzi handiagoa emango zaie enpresaren balioei, eta Erantzukizun Sozialaren ildotik, euskara ere hor egon daiteke”
- Euskararen balio ekonomikoa bultzatu beharra dago gizartean.
- “Euskarak produktuari ematen dion balio erantsiarekin zalantzak daude. Askorentzat euskararen marka galga bat da teknologian”.
- “Administrazioak prestigio soziala eman beharko lioke euskarari, euskarazko teknologia erosita eta erabilita”

Beharra sortzea

- Zerbitzua euskaraz jasotzeak balioa dauka erosle euskaldunentzat. Maila lokaleko merkatu eta helburuak dituzten enpresek euskararen gaia landu egin behar dute: irudian, marketin estrategietan, harremanetan...
- Administrazioak eredu izan behar du, eta administrazioa euskalduntzetik hasi behar da

- “Deialdi publikoen puntuazio teknikoetan euskararen erabilera puntuatu beharko litzateke, prestigio soziala indartzeko eta egindako ahalegina errekonozitzeko.”
- “Gure bezeroen %80 Euskal Herrikoa da, eta askok eskertzen eta baloratzen dute gurekin euskaraz lan egin ahal izatea”
- “Ez dira behar adina erabiltzen euskaraz dauden teknologiak, estrategia eta plan batzuen falta dagoelako”.

Kultura partekatzea

Pertsonen arteko harremanak

- Euskaraz ez egitea oztopo sozial handia da, baina ez da oztopo teknikoa.
- Langileen kohesioan eta enpresarekiko atxikimenduan irabazten du enpresak euskara erabiliz. Eta Erantzukizun Sozialaren eremuan enpresa arduratsua izango da.

- “Hainbat kulturatako pertsonen artean, hizkuntzaz gain, kultura bera ere oztopo handia da. Herriko kultura ezagutzea garrantzitsua da merkatuan negoziatzeko”
- “Dauzkagun bezeroak harreman luze baten emaitza dira, eta hor aspektu kulturalak benetako pisua dute; eta kultura eta hizkuntza eskutik datoz”

Marta (lanean euskaldundua)



42 urte, Bilbo/ Iana Markinan
(2 kiderekin osatutako profila)

**“Enpresaren eta lantaldearen
jarrera, babesa eta hizkuntza
politika ezinbestekoak (izan)
dira (nire) euskalduntze-
prozesuan”**

EZAUGARRIAK

- Unibertsitate ikasketak ditu
- Ia ibilbide profesional osoa kooperatiba batean eman du eta orain ardura postua dauka.
- Enpresan bertan ikasi du euskaraz.
- Denbora asko eman du euskara ikasten.
- Lanaren %85etik gora (formala eta informala) euskaraz egiten du eta arnasmune bateko kide da.
- Jende askoko foroetan ere euskaraz egiten du.
- Lanetik kanpo ere euskaraz bizitzen saiatzen da, seme-alabekin batez ere.

MOTIBAZIOAK

- Bere lan-ingurune euskaldunean “ondo” integratu nahi du, hizkuntza oztupo izan gabe. Errespetuagatik eta betetzen duen karguak izan behar duen eredugarritasunetik.
- Lanetik kanpo ere euskaraz bizi nahi du.
- Erronka pertsonala da eta harro dago izan duen ikasketa-prozesuarekin.

KEZKAK

- Hizkuntza Politika zurrunaren ondorioz: 1) arazoak daude profil zehatzeko pertsonak kontratatzeke
- 2) Presioa sortzen du ikasleen artean, eta hori ez da motibatzailea.
- Enpresen euskalduntze prozesuan atzera egiteko arriskua, egon, badagoela uste du.

Talentua erakartzea

Pertsonen arteko harremanak

- Pertsonen arteko harremanetan euskarak asko hurbiltzen du.

Enpresaren politikak eta interesa

- Langileen euskalduntze prozesuan gakoak izan dira ingurune soziolinguistikoan enpresaren hizkuntza politika eta lankideen jarrera eta babesa.
- Enpresen egitekoa ere bada kultura sustatzea. Helburu ekonomikoez gain, enpresek beste helburu batzuk ere izan beharko lituzkete.
- Enpresetako ekosistema linguistikoak euskaldundu behar dira, etorkizuneko pertsonek lana euskaraz egin dezaten, eduki aldetik gai izango direlako. Etorkizuneko enpresetan euskaraz lan gehiago egingo da.

Beharra sortzea

- Euskarak produktuari ez dio balio erantsirik ematen kasu gehienetan.

Kultura partekatzea

- Euskara komunikazio tresna bat baino gehiago da: gure identitatearen eta nortasunaren intsignia da.

“Talentua erretentitu eta enpresaren hizkuntza politika konbinatu behar dira eta hori egiteko motibazioa erabili behar da eta ez derrigortasuna. Motibatzaile izan behar da eta ez mugatzaile.”

“Mantener la política lingüística, captar talento y retener ese talento. Hiruren oreka mantentzea da erronka”

“Hizkuntza politika bat izatea garrantzitsua da normalizazioa sostengatzeko, ezagutza berdintzeko eta guztiontzat arau estandarrak izateko. Beste kontu bat dira izan ditzaken ondorioak.”

“Hizkuntza politika zurrunez banatu egiten dituzte pertsonak y horrek muturreko egoerak sortzen ditu, gatazka sortuz”

“Kooperatibetan zerbait mugitzen ari da, kezka daude euskararen bueltan”

“Arriskua dago (euskararen alde) egindako ibilbidea bertan behera gelditzeko, zaurgarriak gara. Ezin dugu alerta maila jaitsi.”

Jaime (enpresaburu erdalduna)



63 urte, Durango / Iana Elgoibarren
(2 kideekin osatutako profila)

“Kultura sustatzea ez da enpresaren egitekoa. Euskararen gaia lantzea ez dagokio enpresari, zerbait pertsonala da”.

“No es función de la empresa fomentar la cultura. El tema del euskara no es algo que lo tenga que abordar la empresa, es algo personal, de cada uno.”

EZAUGARRIAK

- Ingeniaritza ikasketak ditu.
- Oso gazterik hasi zen enpresan lanean.
- Zuzentzen duen enpresaren sortzailea.
- Enpresa zuzentzen eta kudeatzen dihardu.
- Beste enpresa egitura edo elkarte batzuetako kide eta ordezkari ere bada; enpresa taldea, sektoreko klusterra, patronala,...
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du bere sektoreko teknologia arloa.
- Gaztelan lan egiten du.
- Erretiroa oso gertu dauka.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz eta denborarekin joango dira enpresak euskaldunduz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Enpresaren egitekoa aberastasuna sortzea da eta enpresaren iraunkortasuna nahi ditu.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.

Talentua erakartzea

- Desiragarria litzateke enpresan hasten direnek euskararen ezagutza maila bat izatea.

Enpresaren politikak eta interesa

- Euskara ez da enpresen kezka edo helburu; euskara norbanakoen kontua da, zerbait pertsonala.
- Euskara lan munduan garatzeko muga handiak daude; kanpo mugak (nazioartekotzea, bezeroa, hornitzaileak...) eta barne mugak (lankideen euskara ezagutza eta egungo kontratazio beharrak)
- Enpresa barruan euskaraz egitea zerbait naturala izan behar da, ezin da inposatutako zerbait izan.

Beharra sortzea

- Maila lokaleko merkatu eta helburuak dituzten enpresek euren helburuak lortzeko euskararen gaia landu egin behar dute (irudia, marketin estrategia, harremanak,...)

“Adingabe etorkinen integrazioan elkarlan planteamendu baten beharra dugu (enpresak, administrazioak, hezkuntza) eta integrazio horri begira euskarak ere bere lekua izan behar du.”

“La realidad que se nos impone es la globalización y ahí el euskara debe encontrar el espacio que le es favorable; el ámbito local, el entorno de las amistades, la calle,...”

“No es función de la empresa fomentar la cultura; si empezáramos a impulsar el euskara en las empresas, desde un punto de vista práctico perjudicaría a la empresa, ya que nos desviaríamos de los objetivos propios de la empresa.

“A nivel interno de las empresas se puede impulsar el euskara pero solamente si nos es de ayuda a la hora de realizar mejor nuestro trabajo.”

“La sensibilidad sobre el euskara es algo personal. La persona es clave para que el tema del euskara vaya a más; si hay un interés personal avanzaremos. Es algo que se debe hacer de forma natural, sin imposiciones.”

“El euskara no aporta ningún valor añadido para que las empresas sean más competitivas, no al menos a las empresas que compiten fuera, y tampoco mucho a las empresas cuyos clientes y proveedores son del País Vasco.”

Jose Luis (enpresaburu erdalduna eta euskara sustatzailea)



52 urte, Gasteiz / lana Zamudion
(2 kiderekin osatutako profila)

“Enpresak konektatuta egon behar du gizartearen behar eta eskakizunekin; euskara gurea dugu eta ezberdin egiten gaitu gainera, horregatik, euskara bultzatzea dagokigu guri”.

“La empresa debe de estar conectada a las necesidades y las demandas de la sociedad; el euskara es algo nuestro y además nos hace distintos, por ello, nos corresponde impulsarlo.”

EZAUGARRIAK

- Ingeniaritza ikasketak ditu.
- Oso-oso gazterik enpresa munduan lanean hasitakoa da.
- Zuzentzen duen enpresaren sortzaile da edo enpresa horretan ibilbide oso luzea duena.
- Enpresa zuzentzeko / kudeatzeko lanetan dihardu.
- Beste enpresa egitura edo elkarte batzuetako kide eta ordezkari ere bada; enpresa taldea, sektoreko klusterra, patronala,...
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du bere sektoreko teknologia arloa.
- Bere lana gazteleraz egiten du.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz eta denborarekin joango dira enpresak euskaldunduz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Enpresaren egitekoa aberastasuna sortzea da eta enpresaren iraunkortasuna nahi ditu.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.

Talentua erakartzea

Kultura partekatzea

- Euskarak nortasuna ematen du eta ezberdin egiten ditu enpresak; euskara sustatzea, erroak zaintzeko eta enpresa gisa indartsuago izateko modu bat da.

“Saber euskara no es requisito para trabajar en nuestra empresa; no ocurre lo mismo con el inglés. Eso sí, entendemos que el euskara es un valor añadido y si la persona que se incorpora a la empresa sabe euskara, será mejor para todos/as.”

Pertsonen arteko harremanak

- Jendeak enpresan oso ondo baloratzen du euskara sustatzeko egiten den ahalegina eta beti dago “pixka bat gehiago” egiteko eskaera.
- Enpresan erabiltzen diren hizkuntzek euren funtzioak oso argi dituzte; euskara langileen arteko harremanetarako hizkuntza da, batez ere.

“Impulsar el euskara es un modo de trabajar la pertenencia, es un valor para que el/la trabajador/a se sienta parte de la empresa.”

“Todos estos años hemos ido explorando las posibilidades que hay en la empresa de hablar en euskara, hasta dónde podemos llegar con cada compañero/a de trabajo, ... y diría que los/las que lo saben lo hablan entre ello/as o con los/las que lo entienden.”

Ingelesaren nagusitasuna

- Alderdi tekniko-teknologikoan, hau da, produktuaren garapenerako, ez da euskararik behar. Ingelesaren eremua da hori.

Enpresaren politikak eta interesa

- Enpresak konektatuta egon behar du gizartearen behar eta eskakizunekin; enpresak erreferentea dira alderdi askotan, eta euskararen gaian ere izan behar dute.

“El ámbito del euskara es local, es decir, las plantas de Euskal Herria; el objetivo debe ser maximizar el uso del euskara entre los/as compañeros y compañeras de trabajo”.

Beharra sortzea

- Korporatiboki, eta kanpora begira, ez da behar enpresaren irudia edo marka euskararekin lotzerik, ez baitu ekarpen praktikorik egiten. Dena den, saiatzen dira maila lokalean (EH), enpresaren irudia euskararekin lotu dadin.”

“Fomentamos el uso del euskara desde el mismo momento que se creó la empresa, tanto a nivel interno como a nivel social. Hemos sido reconocidos tanto por la sociedad (comarca, provincia,...) como por distintas instituciones por la labor que hemos hecho y seguimos haciendo.”

“El 60% de los que empiezan a trabajar con nosotros/as sabe euskara pero han realizado sus estudios sobre todo de ingeniería en castellano y en la mayoría de los casos el euskara no es su idioma habitual de uso, por lo que se sienten incómodos con el euskara en el trabajo.”

Horixe da gaika sailkatutako narratiben analisitik atera dugun emaitza.

Horrez gain, interpretazio saioetan jasotako iritzien eta usteen arabera, ez ditugu errealitatean dauden profil guztiak jaso ikerketaren emaitzetan. Hortaz, hauek dira partaideen ustez **existitzen diren eta jaso gabe dauden profil** proposamenak:

- ↪ Unibertsitateko irakasle erdalduna
- ↪ Sindikatuko ordezkaria
- ↪ Enpresari elkarteko ordezkaria
- ↪ Enpresako langile euskalduna (ardura kargurik ez duena)
- ↪ Unibertsitateko ikaslea
- ↪ Administrazioako euskara arloko eragilea

3.4 EUSKARAREN BALIO POSITIBOAK

Jaso ditugun narratibak aztertuz, **diskurtso berriak sortzeari begira balio positiboa duten narratibak** aukeratu ditugu. Hain zuzen ere euskara jakin eta erabiltzearen inguruko balio positibotzat identifikatu ditugu honako sei hauek:

- a. “Euskaraz lan egitea edo lan egin ahal izatea elementu **motibagarria** da”.
- b. “Enpresa askorentzat, euren izaera eta **nortasunaren elementu bereizgarri** eta garrantzitsua da euskara”.
- c. “Enpresen irudiaren lanketan euskarari balio praktiko bat aitortzen zaio eta euskara enpresaren **irudi moderno eta dinamikoarekin lotzen** da; euskaraz lan egiteko aukera eskaintzen duen enpresa, **enpresa erakargarria** da”.
- d. “Euskara jakiteak eta erabiltzeak **enpresaren helburuetako batzuk lortzen laguntzen** du, hala nola **bezero euskaldunei zerbitzua euskaraz** eskaintzen, eta eragin positiboa du **langileen arteko kohesioan** eta bezeroarekiko harremanetan. Gainera, enpresarekiko **atxikimendua/konpromisoa indartzen** laguntzen du”.
- e. “Enpresa kokatua dagoen **gizarteari bere ekarpena egiteko modu bat** da enpresan bertan euskaraz lan egitea edo euskaraz lan egin ahal izatea”.
- f. “Euskal Herriaz **kanpotik datozenak gure gizartean/kulturan integratzeko** orduan elementu garrantzitsua da euskara, eta lan mundua euskalduntzeak integrazio horretan lagun dezake”.

Finean, balioen zerrenda hau egin dezakegu: **motibatzailea, nortasun elementua, modernoa, dinamikoa, praktikoa, kohesionatzailea, konpromisoa, gizarte erantzukizuna, integratzailea**.

3.5 AUKERA IZAN DAITEZKEEN NARRATIBAK

Sektore teknologikoan euskarak aurrera egin dezan, jasotako narratiben artean **aukera** edo **erronkatzat** har daitezkeen sei narratiba identifikatu ditugu.

- g. “Gazte **belaunaldi berriak inoiz baino prestatuago** daude euskaraz lan egiteko”.
- h. “**Enpresa eredu berriak** euskararen erabilera sustatzeko **marko egokia** eskaintzen du: enpresa etikoa, sozialki arduratsua, interes taldeak aintzat hartzea, konfiantza, errespetua...”
- i. “Teknologian derrigorrezko hizkuntza eta balio erantsia ematen duena ingelesa bada ere, **ingelesaren nagusitasunak ez du zertan euskararen kalterako izan** lan munduan”.
- j. “Etorkizuneko **teknologia eleaniztuna** izango da eta euskarak ere bere lekua izango du teknologia horietan; dagoeneko aurrerapauso handia eman da itzulpen sistema automatikoetan-eta **euskara bere lekua egiten** ari da”.
- k. “Enpresek, langileek euskaraz lan egiteko duten **nahiari erantzun behar** diote”.
- l. “Euskararen egoera normalizatzeko lan mundua euskalduntzearen garrantziaz eta estrategikotasunaz **gero eta kontzientzia handiagoa** dugu horretan eragin dezakegunok, besteak beste, administrazioa, enpresa eta zentro teknologikoak eta unibertsitateak”.


3.6 NARRATIBA ERALDATZAILEAK

Eraldatzeko ahalmena izan dezaketen narratiben artean, hauek biak aukeratu ditugu:

- m. Euskara **konfiantza eta gertutasun elementua** da; lankideen artean, bezeroekin, hornitzaileekin... euskaraz eginda, gertutasuna eta konfiantza sortzen/handitzen da, eta horrek **balio erantsia** ematen dio erakundeari.
- n. Euskaraz lan egiteak **zentzua ematen** dio enpresek egiten dutenari. Enpresa askok sinesten dute egiten dutena euskaraz egitea (produktua, zerbitzua, gizarteari egiten dioten ekarpena...) enpresak duen misio sozialarekiko koherentziaz jokatzeko modu bat dela; **gizarte erantzukizunarekin lotzen** dute euren praktika”.

3.7 BOTERE HARREMANEN ANALISIA

Entzute prozesuko elkarrizketak, behaketa eta narratiben analisia aintzat hartuz, teknologia arloko eragileen arteko botere harremanak aztertu ditugu, eta ondorioak atera. Argi ikusten da nolakoa den hiru eragile nagusien artean dagoen botere harremanen erlazioa.



Zer eskatzen diote elkarri?

- » Administrazioak enpresei: “Enpresek ez dute euskara sustatzeko behar besteko interesik erakusten. Ez dator eskaerarik enpresetatik”.
- » Enpresek administrazioari: “Enpresetan euskara sustatzeko, Administrazioak ez du behar besteko sustapenik eta presiorik egiten”.
- » Enpresek eta ikerketa zentroek unibertsitateei: “Unibertsitateetatik lanera datozen ikasleen euskara maila ez da batere ona, euskaraz lan egiteko arazoak dituzte askok”.
- » Unibertsitateek enpresei: “Ikasleak (ikertzaileak) euskaraz formatzeko egiten dugun ahaleginak ez du jarraipenik ondoren enpresetan, erdaraz lan egin behar izaten dute eta. Enpresetatik ez zaigu iristen eurentzat euskara garrantzitsua den mezurik”.
- » Unibertsitateek administrazioari: “Euskara normalizatzeko unibertsitateetan egiten den lana oso borondatezkoa eta pertsonaren arabera da oraindik ere, eta hori ez da nahikoa. Administrazioak, apustu egin eta gehiago inbertitu behar du unibertsitatearen euskalduntzean”.

3.8 ENTZUTE OSAGARRIA

Entzute prozesuaren beste atal garrantzitsu bat entzute osagarria izan da. Hau da, ikergaiaren unibertsoko pertsona lagin bat aktiboki entzuteaz gain, unibertso horretan esaten ari zena entzuteko eta jasotzeko mekanismoak martxan eduki ditugu bi urteko lan prozesuan zehar.

Horretarako, Emuneko **zaintza teknologikoko sistemari** radar txiki bat jarri diogu, eta **ikergaiarekin loturaren bat izan duten albisteak eta edukiak eta diskurtsoak iragazi** digugu, eta analisirako eta kosorkuntzarako erabili. Izan ere, inportantea da entzute sakonetik kolektiboki interpretatutako narratiba nagusiak bat etortzea gizartean operatzen ari diren narratibekin eta errealitatearekin. Eta, horrez gain, etorkizuneko diskurtso berria sortzeko aintzat hartzea komunitate osoaren ezagutzak, usteak eta balioak. Eta halaxe egin dugu.

Gure iturrietatik jasotakoarekin eduki esanguratsua bildu dugu, eta zazpi ataletan ordenatu, edukirik esanguratsuenak testuetara ekarriz. Entzute osagarriaren **eduki osoa, eranshinean** aurkituko duzu.

3.9 ETORKIZUNERAKO GAKOAK ETA DISKURTSO BERRIA SORTZEKO IDEIAK

Etorkizunera begira jarritz, diskurtso berrirako ideiak sortu genituen kosorkuntzako lan saioan. Talde Motorrarekin egin genuen lan saioa, eta etorkizunerako ideia ildo batzuk adostu genituen.

Egin genuen ariketan, lau profil hartu genituen jomugan, eta lau gai multzo nagusietan jarri genuen fokua. Kasu bakoitzerako galdera bat planteatu genuen, eta ideia-zaparraren ondoren, indar handieneko ideiak aukeratu genituen. Hortxe emaitza:

NEREA (ADMINISTRAZIOKO ORDEZKARIA)



Nola lortu dezakegu Nerea konbentzitzea politikak bultza ditzan bereziki teknologia aurreratuetan (gazteek behar dituzten gailuetan, softwareetan...) euskarak lehentasuna izan dezan?

- ✓ **Pizgarriak:** Administrazioak banatzen dituen diru-laguntzetan euskara arloko irizpideak zehaztu behar dira eta baldintza horiek eskatu enpresei, diru-laguntzen esleipenean onuradunak izan daitezten.
- ✓ **Administrazioak gizartearekin duen erantzukizun sozialaren baitan** dago euskara. Administrazioaren arduren artean dago **gizartearen beharrei erantzutea**, euskara sustatzea arlo guztietan.
- ✓ Administrazioan **kargudun lanpostuetan jartzen diren pertsonak euskararekin sentsibilizatuta egotea estrategikoa** da, zeharkako politikei garrantzia handiagoa emateko.

JUAN MARI (ENPRESAKO ARDURADUN EUSKALDUNA)



Nola lortu dezakegu Juan Marik (eta bere ingurukoek) bere enpresan euskara txertatzea? Nola konbentzitu? Zer esan? Nork esan? Zer landu berarekin? Jakinda belaunaldi berriak euskaraz lan egiteko gero eta prestatuago datozela eta kohesiorako balio dezakeela.

- ✓ Langileen **errotazioa moteltzen** eta **enpresarekiko leialtasuna** handitzen lagun dezake, erakundearekiko **kohesioa eta atxikimendua** handitu daitezkeelako euskararekin.
- ✓ Erakutsi behar da **euskarak gauzak ondo egiteko balio** duela, **onura garbi bat dela enpresentzat**. Hori ikusarazi behar zaie enpresei. Hori horrela, aurrera egingo du euskarak lan munduan ere. Zer da gauzak ondo egitea? Pertsonen arteko **kohesioa, harremanak, konfiantza** eta **giro ona**; balioak.
- ✓ **Jende euskaldun talentuduna** badago, eta haien talentua **aprobetxatu** beharra dago. Talentu gehiagok, enpresaren **errentagarritasun handiagoa** ekarriko du.

JAIME (ENPRESAKO ARDURADUN ERDALDUNA)



JAIME
(Enpresako arduradun erdalduna)

Nola lortuko dugu Jaimek (eta bere ingurukoek) bere enpresan euskara txertatzea? Nola konbentzitu? Zer esan? Nork esan? Zer landu beraiekin?

Nola konbentzi dezakegu Jaime belaunaldi berriak euskaraz lan egiteko gero eta prestatuago datozela ikus dezan? Eta zer egin pertsonen arteko harremanetan euskarak izan dezaken garrantziaz jabetu dadin?

- ✓ Enpresetan beharra sortzeko, **Administrazioaren sustapena beharrezkoa** da.
- ✓ **Euskara kudeatzeko soluzio aukera desberdinak** proposatu behar zaizkie, hizkuntza aukeran emateko diskurtsoarekin (langileei eta kontsumitzaileei hizkuntza aukeran ematearen diskurtsoa, adibidez, museoak, TAO makinak, kafe-makina eleaniztunak).
- ✓ Enpresa **moderno**a, **malgua**, **eleaniztuna**, **jatorrian errotuta**, **balioei lotua...izateko**, **ezinbestean euskara txertatu** beharra dago. Enpresa **lehiakideengandik desberdindu** nahi bada, euskara **faktore garrantzitsua** da.

IBAN (UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)



IBAN
(Unibertsitate)

Nola lortuko dugu Ibanek (eta bere ingurukoek) unibertsitatean euskara txertatzea? Nola konbentzitu? Zer esan? Nork esan? Zer landu berarekin?

Nola lortu dezakegu Ibanek ikustea unibertsitatearen funtzioa gakoa dela belaunaldi berriak prestatzen, harremanak euskaraz izan daitezen...?

- ✓ **Euskarazko ikerketa sustatzeko** estrategiak eta bideak landu beharra dago.
- ✓ **Unibertsitatean euskararen kalitatea** landu beharra, berariaz.
- ✓ **Curriculumak hobetzea** proposatu beharra. Euskarazko graduak, euskara zientifikoko gaiak indartu beharra.
(**diskurtsoa**: “dekretuz”, goitik behera bultzatu beharra dago, badagokiolako).

KOSORKUNTZA FASEAN ATERATAKO BESTELAKO IDEIAK:

- **Eragile guztiek** egon behar dute honetan. Denok norabide berean jarri behar dugu, **elkarlana** gakoa da.
- **Besteek egindakoa aitortu** beharra dago eta **norbere buruari** galdera egin: “nik **zer gehiago egin dezaket?**”
- **Teknologiaren garapena oso lagungarria** izango da hizkuntza txikiak gehiago erabiltzeko.
- **Ingelesaren nagusitasuna argia** da esparru batzuetan. Hortaz, **euskarari funtzioak bilatu** behar dizkiogu **bestelako eremuetan**.
- **Ingurunearen arabera, diskurtso desberdinak** behar dira: diskurtsoen konstelazioa behar dugu.
- **Anbizio handikoak** izan behar dira diskurtsoak, **ez mugatzaileak** (**ero puntua** duten ideiak). **Pentsamendu linealetik haratago** joan behar dugu.
- Behetik gora ari gara baina **unea da goitik beherako erabakiak** hartzeko; **beste politika batzuen premia** dago.
- **Foroak eta topaketak antolatzea edo antolatzen direnetan euskara txertatzea** beharrezkoa da, **praktika onak erakusteko**. Adibidez, AFMren (Asociación Española de Fabricantes de Máquina Herramienta) Donostiako kongresuan 8 berrikuntza proiektu (30en artean) euskaraz aurkeztu zituzten euskal zentro teknologikoek.

4. ONDORIOAK

Ondorioen atala hirutan banatu dugu: batetik, prozesuaren inguruko ondorioak, bestetik, edukien inguruko ondorioak, eta, azkenik, aurrera begirakoak.

4.1 IKERKETA PROZESUAREN INGURUKO ONDORIOAK

- Gure ikerketaren **unibertsoa handia eta lagina mugatua** izanik, emaitzetan **jaso dugun errealitatea partziala da** eta hainbat diskurtso eta profil geratu dira kanpoan, jaso gabe.
- Unibertso osoaren soslai linguistikoa laginaren soslai linguistikoarekin alderatuz, badakigu laginak ez duela bete ezaugarri hori proportzio berean. **Bereziki soslai euskaltzalea gailendu da gure ikerketan**, baina propio egin dugu hori, diskurtso berri baterako euskararen aldeko narratibak jasotzeko helburua ere izan duelako proiektuak.
- Ikerketan jasotako diskurtso ezberdinekin, **ahalik eta profil gehien sortzera jo** dugu propio, profilen gama irekitzeko interesatzen zitzaigulako. Ondorioz, **profil batzuk ahul samarrak** izan daitezke, pertsona gutxiren testigantzekin sortutakoak direlako, eta hori ere kontuan hartu beharra dago.
- Oro har, eragile gehienek partetik elkarrizketetan parte hartzeko eta Twitter-en txioa argitaratzeko **jarrera eta prestasun egokia** sumatu badugu ere, kide gutxi batzuen partetik **gaian larregi ez bustitzeko eta errezelozko jarrera ere sumatu** dugu, eta gehiago kosta zaigu euren barrura sartzea. Gai honekiko oso puntu ezberdinetan dauden kideekin jardun dugun seinale.
- Gure ustez, proiektuaren **garapen prozesua** bera izan da interesgarria eta **aberasgarria**. Sektoreko eragileekin batera hausnartzea eta berba egitea bera izan da eraldaketarako lehen pausoa. Eragile batzuek lehen aldiz egin dute gogoeta gai honen inguruan, eta oso positiboa izan da ikustea eragile batzuentzat nolako aldaketa izan den taldean gogoeta egite hutsa. Konbentzitura gaude esperientzia hori **aberasgarria izan dela eurentzat ere**, arrazoi hauengatik:
 - Oro har, **gogoz** parte hartu dute profil guztietako pertsonak, eta bakoitza beretik bere ekarpena egiteko **prest** azaldu da.
 - Gaiaren inguruko **interesa** sumatu dugu lan saioetan, eta gustura jardun dute **elkarrekintzan** eta ikuspegi truke horretan.
 - Behaketa bidez frogatu ahal izan dugu **eraldaketa prozesua hausnartzetik hasten dela**, eta interes talde ezberdinen arteko interakzioak eta elkarrizketak (elkar entzuteak) norbera dagoen lekutik aldatzeko jarrera irekiago batera eramala, finean. Emunen blogean argitaratutako [artikulu honetan](#) horixe aipatzen da, hain zuzen ere.

Hortaz, **ikerketa bera gertatu da interbentzio**, finean. Alegia, eskala txikian bada ere, ikertzeko prozesua bera **sektorean eragiteko interbentzio modu bat** izan da. Uhin txiki bat sortzea eragin du ikerketak berak, hain zuzen ere. Beraz, uste dugu metodologia honen baliagarritasuna aintzat hartzeko modukoa dela bestelako interbentzioak egin edo planteatu nahi direnerako. Ikasbide hori gutxienez atera dugu ikerketa honen bidez.

Eta, noski, teknologia aurreratuaren **sektorea bera hobeto ezagutzeko** ere balio izan du proiektuak.

4.2 EDUKIEN INGURUKO ONDORIOAK

Ikerlan honetatik jasotako emaitzak eta ezagutu dugun errealitatea aintzat hatuz, honako gogoeta egin dugu ondorioei begira:

- Teknologia aurreratuaren arloa, oro har, oraindik **oso erdalduna** da gaur-gaurkoz EAEn, baina **badaude oasi txikiak**.
- Arlo guztietan daude euskarazko errealitate berri bateranzko **eraldaketa amesten eta irudikatzen duten kideak** eta arduradunak (Administrazioan, unibertsitatean, enpresetan, zentro teknologikoetan...).
- Eragile **batzuek badihardute euskarari funtzioak emateko** ahaleginetan, baina bidean topatzen dituzten oztopoak eta erresistentziak nabarmenak dira eta horrek higadura sortzen du eragileengan.
- Botere harremanetan argi ikusten da **eragile bakoitzak beste arloko eragileen bizkar gainean jartzen** duela egoera hobe ez izatearen 'zama'.
- Eragile ezberdinen arteko **elkarlana beharrezkoa** da sistema osoan borondateak lerrokatzeko eta euskara funtzioak irabazten joan dadin. Elkarlana ez ezik, beharrezkoa da sistemako elementu guztiek **modu bateratuan eta sistemikoan indar egitea norabide berean**, eragina esanguratsua izan dadin.
- Euskarak balioa izan dezan enpresek euskara egiten has daitezen, **nondik hasi eragiten?** Elkarlana beharrezkoa bada ere, Administrazioari rol inportantea egozten zaio, eta botere publikotik bultzatu beharra aipatzen da behin eta berriz. **Administrazioari erantzukizuna hartzea dagokio**.
- Enpresa eredu berria eta **EGE edo gizarte erantzukizunarena izan daitezke diskurtso berri baterako giltzarriak**. Etorkizuneko enpresa eredu berriak dakarren filosofiarekin eta enpresari elkarrekin bultzatzen hasi diren diskurtsoarekin konektatzen du, erabat. Hor badago lantzeko moduko alor bat.
- Euskarari aitortzen zaion **balioa aldatu egiten da ingurune soziolinguistikoaren arabera** eta erakundearen euskalduntasun mailaren arabera. Gune euskaldunagoetan, balioa handia aitortzen zaio euskarari, eta gune erdaldunetan, berriz, balioa apalagoa. Hortaz, **egiten denean hartzen du balioa euskarak** (asko egin duenak asko ikusten du egiteko, eta gutxi egin duenak gutxi). Hortaz, erabileran dago gakoa. Erabilerak dakar balioa; eta balioak dakar erabilera.
- Profil guztiek aitortzen diote euskarari **harremanetarako eta lan eremuan sozializatzeko daukan gutxieneko balio** bat (ez hainbeste lanerako eta ikerketarako). **Zoru komun modura har daiteke** faktore hori aurrera egiteko planteamenduak eta diskurtso ildoak gizarteratzeko orduan. Izan ere, ekosistema osoan sumatu dugu **euskara desiragarria den elementu modura onartua** dela oro har, eta euskarari poliki-poliki sarbidea ematen joatearen aldeko gogo bat, asmo bat edo inertzia bat nabari dela.
- Sentsibilizazio eta komunikazio lan handia dago egiteko, eta hastapenetan ikusten dugu gaia. Sektoreak gaiaren inguruko kontzientzia har dezan, **sistematikoki eta modu planifikatuan eragin** beharko litzateke **hausnarketa eta komunikazioa**. Sektoreko eragile ezberdinak elkarrekin hizketan jartzea, eztabaidatzea eta euskara arloan aitzindariak direnen testigantzak entzutea inportantea da aurrera egiteko.

4.3 AURRERA BEGIRAKOAK

- Uste dugu etorkizuneko diskurtsoak sortzeko, etorkizuna bera hartu behar dela aintzat: **etorkizuna nolakoa, diskurtsoa halakoa. Etorkizuneko balioekin konektatu behar du** euskararen aldeko diskurtsoak, eta hor egon daiteke benetako erronka. Ezaugarri hauek, gutxienez, eduki ditzake etorkizunean teknologiararen sektoreak:
 - **Gizartea globala** izango da (globaltasunean, lokalean errotutako identitateak nagusitu daitezke).
 - **Digitala eta teknologikoa** izango da (indartzen joango da eremu digitala, eta adimen artifizialean gero eta oinarrituagoa).
 - **Gazte euskaldunak** egongo dira euskal erakundeetako **lidergo postuetan** (beraien balioak eta pertzepzioekin konektatu beharko da).
 - **Enpresa eredu berritzailea eta gizatiarragoa** nagusituko da (legez landu beharko dituzte iraunkortasun gaiak; sozialak, ekologikoak eta ekonomikoak).
 - **Sistema osoaren gaineko inpaktua** lortzetik bakarrik etorriko da benetako aurrerapausoa. Euskararen aldeko proiektuek konektatuta egon beharko dute eta sinergiak modu koherentean antolatuta, sinesgarria eta eraginkorra izan dadin. Hortaz, eragileen arteko adostasuna eta elkarlana ezinbestekoa izango da.

Bost premisa horiek, gutxienez, kontuan hartzea komeni dela irizten diogu.

Noizbait **arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko Plan Estrategikoaren baitan** teknologia aurreratuko sektorean interbenitzea estrategikoa dela ikusiz gero, une hori iristen denerako prest izango dugu proiektu honetan izan dugun esperientzia eta bertatik atera ditugun ikasbideak.

Teknologiararen sektorean euskara normalizatzeko bidean, ikerketa mailatik haragoko uhinaldi bat sortzeko, sektoreko gune estrategikoetan eragiten hastea izan liteke lehendabiziko pausoa: SPRIz gain, estrategikoki **BRTA aliantza inplikarazi** beharko litzateke, adibidez, eta sektoreko **klusterrak** interpelatu.

Industriaren eta teknologiararen sektoreko jardunaldi eta **foro espezifikoetan** ere gaia sartzen joan daiteke, poliki-poliki, adibidez AFMko kongresuan ikerketak euskaraz aurkezteko urratzen ari den bidea eredutzat hartuz. Gaiaz hizketan hasi eta diskurtsoak plazaratzen hastea litzateke lehen pausoa emateko modu bat. Eta, noski, hori guztia Eusko Jaurlaritzaren arlo sozioekonomikoko plan estrategikoaren barruan eta **beste egitasmoekin koordinatuta** egitea litzateke logikoena.

Sortu ditugun euskarrei zabalkundea eman behar zaie, eta sektore teknologikoan euskararen erabilera indartzen joateko erabili. Izan ere, komunikazio lan handia dago egiteko sektore horretan, eta uste dugu euskararen gaia sektoreko bilguneetan bistaratzen eta **sozializatzen joan beharra** dagoela. Zehar-lerrotasunez lekua egin gaiari, eta gaiari buruzko diskurtsoak entzun behar direla foro horietan, boterea duten pertsonen buruetan **euskararen marka modu positiboan kokatzen** joan dadin.

5. KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA

Egin dugun prozesua komunikatzeko eta diskurtsoak gizarteratzeko, bideoak eta euskarriak sortu ditugu. Ikerketan zehar jaso ditugun narratiba eta diskurtsoak aztertu ondoren, laburpen modura, ondorio orokor hauek hautatu ditugu proiektuaren aurkezpen bideoan zabaltzeko:

- Enpresa teknologikoetan talentua erakartzeko balio dezake euskarak. [Talentua]
- Nortasun elementu bereizgarria da eta tokian errotzeko balio du. [Nortasuna]
- Konfiantza eta gertutasuna lortzeko balio du euskarak; bezeroekin, hornitzaileekin eta langileen artean [Konfiantza]
- Gizarte erantzukizunez jokatu nahi duten enpresentzat ezinbesteko elementua da [Gizarte erantzukizuna]
- Etorkizuneko enpresa eredu berriak marko aproposa eskaintzen du euskara garatzeko [Etorkizuneko enpresa eredua]
- Teknologiaren garapena lagungarria izango da euskararen garapenerako [Teknologia lagun]
- Diskurtso ezberdinen beharra dago, profil bakoitzera egokitu behar baita diskurtsoa [Diskurtsoak egokitu]
- Teknologiaren sektorean, erabilera txikia izanik ere, indartuz doa kontzientzia [Kontzientzia indartzen]
- Eragile guztien arteko elkarlana gakoa da euskarak aurrera egin dezan [Elkarlana: Administrazioa, hezkuntza, enpresak]

Bestalde, Talde Motorreko kideekin eta bestelako erakunde batzuetako kideen lankidetzarekin, 9 bideo-pilula sortu dira. Pilula horietan, gizarteratzeko moduko askotariko diskurtsoak aukeratu ditugu, eta 3 minutuko bideoetan grabatu.

Sortu ditugun **euskarriak Eusko Jaurlaritzaren webgunean** jarri dira (lotura), eta arlo sozioekonomikoan euskara indartzeko eta prestigiatzeko baliatu ahal izango ditu edonork.

6. AZKEN HITZAK

Egindako prozesuak sektoreko **errealitatea esploratzeko** balio izan du, eta gaur-gaurkoz esku artean daukagun emaitza ukigarria ere balioan jartzeko modukoa dela iruditzen zaigu, eduki ditugun baliabideei etekin handi samarra atera diogulakoan baikaude.

Atera diren **diskurtsoak**, egindako **analisiak** eta landu ditugun **7 profilak koherenteak** direla baieztatzeko moduan gaude, interpretazio saioetan jasotakoaren arabera. Bestalde, bigarren faseko lanketatik ideia gako batzuk ateratzea lortu dugu, baina uste dugu **kosorkuntza faseko lanketa motz samar** geratu zaigula, lehentasunak beste bi faseetan jartzea erabaki dugulako (batik bat entzutean gehiago sakontzeko).

Halaber, **komunikaziorako sortu dugun materiala oso txukuna eta erabilgarria** dela uste dugu. Grabatutako 9 bideo-pilulak oso erabilgarriak iruditzen zaizkigu, bereziki. Hortaz, **daukagunari balioa ematea** da proposatzen duguna, alegia, proiektuak eman duen emaitzari merezi duen **zabalkundea ematea**.

Amaitzeko, erakunde eta pertsonen arteko **kolaborazio sare interesgarria** osatu dugu denon artean. Hasieran zailtasunak aurreikusten bagenituen ere, lortu dugu **teknologiaren alorrean puntakoak** diren erakundeetako arduradunak eta ordezkariak proiektuan inplikatzeari elkarrizketetan eta lan saioetan parte hartzeko prest azaldu dira, hausnartzera gonbidatu ditugu, eta sentsazio onarekin joan direlakoan gaude. Datutan, guztira **31 erakundetako 51 pertsonak parte hartu** dugu proiektuan, erakunde antolatzaileak barne.

7. ERANSKINAK

7.1 ENTZUTE OSAGARRIA

EuskaraGoiTek



Marka, balioak, euskara, identitatea

1.- **Markagintza eta euskara.** Euskal Herriaren nazio marka garatu beharraren inguruan [eztabaida](#) sortu zen 2016 aldera. Dagoeneko abian dago euskal kulturaren marka sortzeko proiektu bat. Eusko Jaurlaritzak 2014an [Euskadi Basque Country](#) marka sortu eta garatu zuen. Hainbat jardunaldi egin eta artikulu idatzi dira gaiaren inguruan:

[Marka eta eredia aurrera egiteko jardunaldiaren](#) berri (2016), BERRIAN. [Euskararen mozkinak](#) erreportajea (2018); [Nazio baterako marka bat](#) albistea (2019) BERRIAN; [Zubiak amildegirako](#) (2019) BERRIAN; ['Basque', bidea markatzen](#) (2019) BERRIAN.

Nazio markagintza. Nola transmititu gure balioa [argitalpena](#) (2018).

2.- Ana Urkizaren Garen hori argitalpena (2021). Zein dira euskal balioak, halakorik baldin badago? Zerk egiten gaitu Gu, eta nola uztartzen da izate kolektibo hori gutako bakoitzarekin? Ba al dugu euskal nortasunik eta nortasun horri dagokion markarik, irudirik? Eta zein leku du horretan kulturak? Zein da sortzaileen eta komunikatzaileen eragina nortasun horren eraikuntzan?

3.- Naima El Bani Altuna Paleozeanografoa, Elhuyar [aldizkarian](#) (2019):

“Zientzia gizarteratzeko, garrantzitsua da norbere hizkuntzan aritzea”

UEUK antolatzen duen Txiolesia sariketa ere irabazi baitu horri esker, [txiolar ulergarrienaren kategorian](#). Ez zuen inondik inora espero, baina pozik dago, sinestuta baitago ezinbestekoa dela zientzia gizarteratzea. “Eta, horretarako, garrantzitsua da norbere hizkuntzan aritzea. Nire inguruko ikertzaileek, diren lekukoak direla ere, ingelesez egiten dute Twitterren, baina nire amak, adibidez, edo nire lagun batzuek ez dakite ingelesez. Zertan ari naizen ulertzea nahi badut, euskaraz kontatu beharko diet, bada!”.

Euskararen balioa, lan munduko diskurtsoak eta metodologiak

1.- Belen Urangaren [hitzaldia](#) Topaldian (2018). **“Diskurtso ezberdinak euskalgintzan”**

Diskurtsoen inguruko marko teorikoa: xede taldeak, aukerak eta erronkak identifikatzen.

Esparruak:

- Iraunkortasuna/Ekologingintza (aniztasuna, berdintasuna, gizarte ardura, subsidiaritatea).
- Hizkuntza eskubideak.

- Identitatea.
- Balio demokratikoak, bizikidetzak, errespetua.
- Balio pragmatikoa.
- Gutxiengoaren diskurtsoak (feminismotik ahalduntzea, gutxiengo sexualen estrategiak...).

2.- Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa: EGOD egitasmoa (2016): emaitza txostena

Diskurtsoen inguruko ikerketa mardula eta interesgarria, ezinbestekoa diskurtsoen gaia sakon aztertzeko.

“Diskurtsoak eta gizartea lotuta daude eta elkarri eragiten diote: diskurtsoen arteko harremanak jendeen arteko harremanen parte dira, eta diskurtsoak pertsonen besteekiko harremanetan erabiltzen dituzten baliabideak dira elkarlanean aritzeko, norberaren ikuspegiak besteek harrarazteko, elkarren artean lehiatzeko edo besteak menderatzeko (Fairclough, 2003, 124. or.). Kontua, azken finean, diskurtsoen eraginkortasun soziala da, Pierre Bourdieu-k diskurtsoaren «eraginkortasun performatiboa» deitu zuena: «conseguir que se reconozca a su palabra el poder (...) de imponer una nueva visión y una nueva división del mundo social» (Bourdieu, 1982/1985, 90. or.). Horregatik da hain garrantzitsua diskurtsoen azterketa: diskurtsoen sortzaileek, hitza erabiliz, munduaren kongnizio edo ikuskera jakin batzuk komunikatu eta haien nagusitasuna bilatzen dutelako interakzio sozialean; alegia, errealtate soziala sortzea zein aldaraztea bilatzen dutelako (Martínez de Luna, 2013a, 17. or.).

Lan honen zereginerako, garrantzitsua da ulertzea ideologiaren edo markoen edo diskurtsoen zeregina ez dela errealtatea egiazki islatzea, baizik eta errealtateari buruzko sinesmenak gidatzea: «El criterio de validez de las ideologías no es la verdad sino la eficacia social (...). Sean verdaderas o falsas, las ideologías controlan lo que los propios grupos usualmente consideran que son creencias verdaderas» (van Dijk, 1997/2000a, 55. or.). Eta errealtatea eta sinesmenak ez badira bat etortzen, sinesmenak gailenduko dira, ez errealtatea, George Lakoff-ek (2004/2007, 39. eta 63. or.) nabarmendu zuenez: «La gente piensa mediante marcos. (...) La verdad, para ser aceptada, tiene que encajar en los marcos de la gente. Si los hechos no encajan en un determinado marco, el marco se mantiene y los hechos rebotan», «(...) se ignorarán los hechos y el marco seguirá funcionando».

“EGOD egitasmoaren oinarrian dagoen hipotesia hau da: *Euskal gizartean badago diskurtso berritu, partekatu eta ongi sustraituriko bat osatzeko aukera*. Ikerlan honen emaitzek frogatu dute hipotesi horren betetze maila altua dela edo, bestela esanda, badagoela gizarte sentsibiltate ezberdinen artean oinarritzko adostasuna diskurtso berritua eraiki ahal izateko. Izan ere, oinarri demokratikoetan eraikia den eta bizikidetzarako ateak zabalduko dituen euskararen gaineko diskurtsoak hasiera-hasieratik erreparatu behar dio jendeak gaiari buruz pentsatzen duenari.”

3.- **Diskurtsoaren gaineko diskurtsoak** [artikulua](#), Allartean blogean (2019):

EGOD proiektuan Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoak aztertu zituzten Iñaki Martínez de Lunak eta bere taldeak. Jendartearen nagusi diren bost diskurtso identifikatu zituzten: **a) mesfidatia, b) sustatzailea, c) aldarrikatzailea, d) balio pragmatikoa** eta **e) errespetuarena**. Bakoitzaren atzean zeuden ideiak aztertu eta 21 item identifikatu zituzten,

jendartean oso onarpen handia dutenak: elkarren arteko **errespetuarekin** dute zerikusirik, euskararen **balio pragmatikoarekin** eta euskararen **aldeko jarrerarekin**. (...)

Llengua i joves a Catalunya: usos lingüístics i arguments per a la promoció del català. Batetik gazte jendearen erabilera linguistikoak azaldu dituzte, eta bestetik, katalanerari buruzko [diskurtsoak gaurkotzeko](#) egin duten lan baten berri eman dute. Gazteak xede-talde gisa hartu dute, eta katalana indartzeko 40 arrazoi zerrendatu dituzte, 6 enfoke nagusitan sailkatuta (...)

Ez dut gogoratzen nori entzun nion: **diskurtsoak egokitu ez... diskurtsoak ugaritu egin behar ditugu**. Ez dugu diskurso bakarra nahi, **diskurtsoen konstelazio bat** baizik. Euskaraldian bertan, hamaikakoaren ideia bikaina iruditu zitzaidan: tipologia ezberdinetako hamaika pertsona, hamaika erreferente, euskarara hurbiltzeko hamaika arrazoi, **hamaika diskurso**. Iruditzen zait ideia ez genuela ondo landu, eta aukera polit bat galdu genuela.

4.- Euskaraldia entitateetan: [argudiategia](#)

5.- Euskararen biziberritze prozesua: balioak eta harreman sareak [txostena](#), ALC (2018).

Allartean blogean azterlanaren inguruan aipatzen du: “Bost erakunde horietan identifikatu diren balioak oso ezagunak egiten zaizkigu: parte-hartzea, horizontaltasuna, berdintasuna, elkarlana, aliantzak, berrikuntza, auzolana, konpromisoa, ausardia, erreferentzialtasuna... **Euskalgintzak balio sistema konpartitu oso potentea du.**”

6.- Estitxu Garai publizistari *Eta Kitto!* aldizkarian egindako [elkarrizketa](#) (2016):

“Euskara saltzeko plus-a da, gertutasuna eta bertakotasuna pizten dituelako”

3.- Enpresen gizarte erantzukizuna eta euskara bultzatzeko arrazoiak (2004):

Iñaki Markok 2004an erabili.com-en idatzitako [artikulu](#)an Enpresek euskara bultzatzeko duten erantzukizuna landu da, eta eranskinetan lan munduan euskarari ekiteko eman izan diren arrazoiak zerrendatzen dira, enpresa erreferenteen, aholkularitzen eta adituen testigantzak jasota.

4.- Hizkuntza aniztasunaren onurak, negozioak egiteko (2008):

Europako Batzordearen [txosten honek](#) hizkuntza aniztasuna aldarrikatzen du negozioetarako, eta tartean aipatzen du langileen arteko integrazioarako eta kohesiorako hizkuntza aniztasunak duen balioa. Lerrobura: “*Languages mean business. Companies work better with languages.*”

5.- Euskararen biziberritzea: marko, diskurso eta praktika berriak birpentsatzen [argitalpena](#). Euskararen biziberritzea geldialditik ateratzeko, proposatu dituzte marko, diskurso eta praktika berriak, arloz arlo. Eztabaidarako baliabideak bildu dituzte argitalpenean. Berariaz, lan munduaren inguruko bi artikulu jaso dituzte.

6.- Patxi Saez-en “**Euskara: beharra da gakoa**” [artikulu](#)a (2016) eta “**Elefantea ikusi**” [artikulu](#)a (2015).

7.- **ERALAN** ikerketa proiektua: [EPeSA metodologia](#) (2008). Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritutako **metodologia**.

8.- Iñaki Martinez de Lunaren **Euskara sistema eragilean** [artikulua](#), ARGIA (2019):

“Ekonomiaren logikari jarraiki, soilik negozioarako probetxugarria denean egingo zaio lekua euskarari. Zergatik eta zertarako nahasi euskara finantzetan, enpresetan, zerbitzutan eta abarretan, dirurik eman ezean? Merkatuaren estutasunean alferrikako beste gastu bat gehitzeko? Lehiatzeko abantailaren bat izan beharko du, ezinbestean.

Puntu horretara iritsita, guk geuk, kontsumitzaile, langile, sindikalista edo bezero gisa, badugu zer esan. Botereek aldeko neurriak ezartzearekin batera, euskararen eskaera komunitateak egin behar du; horrela baino ez da euskara errentagarri izango; horrela baino ez da Sistema Eragilera iritsiko.”

9.- **Berez mintzo naiz, gustatzen zaidalako** [artikulua](#), Allartean blogean (2018):

“Esanguratsua da gure artean diskurtsoari ematen diogun zentralitatea. Gogoan dut TELP ikastaroetan ez dela horrela. Diskurtsoa ez zen apenas lantzen...”

10.- **Hizkuntza gutxituak eta garapen iraunkorra** [artikulua](#), Allartean blogean (2019):

“Nazio Batuen Erakundeak abian du 2030 Garapen Iraunkorrerako Agenda. Marko horren baitan, mundua hobetzeko estrategia gisa, 17 helburu definitu ditu: Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIHs).

Hizkuntza aniztasuna modu esplizituan aipatzen ez badu ere, **Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak** horren beharra aldarrikatu du, eta [17+1. helburua](#) proposatu du, hizkuntza eta kultura aniztasunaren berme moduan. Izan ere, Unesco Katedraren ustez: *“doktrinak eta esperientziak behin eta berriro erakutsi dute hizkuntzak ekonomiaren motorra direla, giza-kohesioaren eta bakearen bultzatzaile eta azken batean giza eskubide kontu bat, horregatik garapen iraunkorrak nahitaez kontuan hartu behar ditu.”*

Katalunian, **Respon.cat** Erakundearen Gizarte Erantzukizuna sustatu eta bultzatzen duen entitate bat da. Enpresen eta entitateen lehiakortasuna eta jasangarritasuna lantzen ditu, eta, bestek beste, enpresetan Garapen Iraunkorrerako Helburuak sustatu nahi ditu, enpresen Gizarte Erantzukizunean integratuz. Euren ustez, berezko nortasuna duten gizarteetan, bi arrazoiengatik da funtsezkoa enpresentzat nortasun hori balioestea: (a) aniztasunaren defentsa enpresaren etikan txertatu behar delako, eta (b) bezeroen eta hartzaileen espektatibak kontuan hartu eta ase behar direlako.”

11.- Inma Errearen **Diskurtso handirik gabeko diskurtsoak** [artikulua](#), ARGIA (2017). Euskara Nafarroan.

“Horregatik kezkatzen naute hizkuntza defendatzeko diskurtsoek, beharrezkoak izanagatik ere diskurtso-egileok nahi dugunaren aurka egin dezaketelako, oharkabea. Horregatik nahiago ditut hitzunen nahia aldarrikatzen duten diskurtsoak –“euskaraz bizi nahi dut”–, euskara

pertsonifikatzen dutenak baino –euskara maite dutela dioten askok gehiegizkoak jotzen baitituzte gero euskararen erabilpen zehatzak–. Nahiago egoera jakin baten aurrean indartsu sortzen diren aldarriak, hizkuntzaren aldarrikapen abstraktuak baino.

Nahiago diskurtso txiki askotarikoak eta malguak, unean-unean eta tokian-tokian egoerari aurre egiteko unean uneko eta tokian tokiko baldintzak kontuan hartzen dituztenak, diskurtso bakar erraldoi eta zurrun bat baino.”

Ekinbide instituzionalak

1.- **Talentua erakartzeko estrategiak** lantzen ari dira erakunde publikoak. Adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren programak horren adibide argia dira ([lotura](#)).

“Gipuzkoa, Fellows programaren bitartez, aitzindaria izan da talentu zientifikoa erakartzen; orain, ordea, enpresetara hedatu nahi dugu estrategia hori.

Gipuzkoa Talent proiektuaren helburua da Gipuzkoan giza kapitala sustatzea eta bultzatzea, eta kapital hori Gipuzkoako ekonomia-ehunarekin konektatzea.

Mundu globalizatu eta etengabeko aldaketan ari den batean, enpresen dinamikak politika aktibo bat eskatzen du talentuaren kudeaketan, haien lehia-gaitasunari eutsiko badiote; dagoeneko, enpresen kezka nagusietako bat da, gaur egun, talenturik onena aurkitzea, sortzea, erakartzea eta atxikitzea.”

2.- **"Teknologian eta berrikuntzan Euskal Autonomia Erkidegoaren erronkak"** izeneko jardunaldia egin da 2018ko urrian. Sektore guztietan lankidetza bultzatzeko estrategia sustatu beharra aipatu dute. Jardunaldian manifestu bat aurkeztu dute. Manifestuaren [testua](#). Txostenak eta hitzaldien bideoak, [hemen](#). TuLankideko [albisteak](#)

3.- **ADEGIK [enpresa eredu berriaren gida](#)** argitaratu du eta enpresei begira diskurtso interesgarria gizarteratzen dihardu.

*“Enpresa-proiektu partekatuan enpresari/langile binomioa gaingitu egin behar da, **enpresako interes-talde guztien interesak errespetatuz**.*

Helburu nagusia **enpresa lehiakorragoak, erakargarriagoak, gizatiarragoak eta etikoagoak izatea** da.

Balio berberak oinarri hartuz gero (konfiantza, errespetua eta abar), horietan sinesten dugulako, **pertsona guztiok hobeto egongo gara eta, ondorioz, enpresaren emaitzak ere hobeak izango dira**.

Komeni da enpresaren erabakiek hirugarrenen aurrean nola eragiten duten aztertzea, eta horrek enpresako interes-taldeekiko **sozialki arduratsua den jarrera izatea eskatzen du**”

4.- **Euskara lan munduan indartzeko plan bat onartu du Eusko Jaurlaritzak** ([lotura](#))

2023rako bete behar diren hamar helburu neurgarri ezartzen ditu Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko [Plan berriak](#).

5.- STEAM Euskadi Estrategiaren aurkezpena.

Cristina Uriartek STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategia aurkeztu du (albistea Irekian).

6.- **Euskaraz, talentua gara!** [ekimena](#)

7.- **Lanbide Heziketa Duala euskaraz** [ekimena](#). *Euskaraz, balioa erantsi lanari!*

8.- **Kudeaketa aurreratua eta hizkuntzen kudeaketa.** [Integraziorako Gida](#) (Euskalit)

Gida honek, erakunde pribatuen lehiakortasunean eragiteaz gain, euskara sustatu nahi du, beste hizkuntzekin batera, ohiko lan hizkuntza izatea du helburu.

Hizkuntzen kudeaketak eragina du erakundearen lehiakortasunean. Erakundeari onurak eta etekinak ekarriko dizkio hizkuntzen erabilera egokiak: marka eta irudia nortasunarekin, kulturaren sustapenarekin, bertakoarekin lotzea; diferentzia markatzea; merkatu berriak eskuratzea; dimentsioa handiagotzea; gizartearekiko konpromisoa eta erantzukizuna lantzea; erakunde moderno eta aurreratu gisa plazaratzea...

Euskara eta teknologia digitala

1.- Euskarabildua jardunaldiak

"Burujabetza teknologikorako bidea jorratu ezean, enpresa pribatuen esku geratuko dira oinarritzko eskubideak"

"Euskarabildua jardunaldiak hausnarketa eta galdera mordoa utzi dizkigu aurrera begira. Elikadura edo energia burujabetzarekin parekatu dute teknologia burujabetza, eta aurrera begira lan lerro berriak ireki eta garatzeko beharra azpimarratu dute."

2.- Euskarak mundu digitalean duen presentzia eta eragina aztertu zuten Elgoibarko Euskara ala ez kara zikloan. Bertan daude hitzaldien kronikak eta bideoak.

Euskara, ingurune digitalean: gutxi, aski ala gehiegi? Hiru ondoriotan laburbildu zuen bere hitzaldia Waliñok: "Euskarak badu eskaintza sarean, badago edukia eta badaude tresnak, baina ez dira nahiko, ingurune digitala etengabe aldatuz doalako; erabiltzaileak trebatu eta motibatu behar dira komunitate digitala indartu eta belaunaldi berriak sarean euskara kontsumitu eta sortzera bultzatzeko; eta euskararen bizitasun digitala bermatu nahi bada, eskaintza eta eskaria, biak, indartu behar dira".

Euskararen marka. "Elorriagak esan zuen euskara hautu bat dela gaur, eta ezinbestekoa dela aukera hori indartzeko bide berriak urratzea. (...)

EHUko ikertzaile taldeak 260 enpresa elkarrizketatu zituen 2013an, enpresek sare sozialetan zein komunikazio digital lantzen zuten jakitzeko, eta 2017an, galdeketa bera errepikatu zieten guztiei, bilakaera ikusteko. Enpresa pribatuei egin zizkieten galdeketa, publikoek ez bezala, pribatuek aukeraketa hori borondatezkoa zutela iritzita. Banatu zituzten enpresak sektoreka eta baita tamainaren arabera ere, eta emaitzak argiak izan ziren. 2013an, galdekatutako enpresen %7k ia inoiz ez zuten erabiltzen euskara komunikatzeko, eta aldiz, 2017an, %18 ziren. Aldiz, bi eletan komunikatzen zuten enpresak %21etik %45era igo ziren lau urte horietan. Beste

galdera bati erantzun behar zitzaion gero, baina: Zergatik batzuetan erabiltzen dute euskara eta beste batzuetan ez? Zergatik matrikulatzen dira erdaraz EHUra iristen diren ikasle elebidunen %30? Zergatik aukeratzen dute gazteleraz ikastea eta ez euskaraz, ulertzeko gai izanda ere?.

Era horretako galderei erantzun bat emateko abiatu dute ikerketa, euskararen markaren egungo egoera aztertzeko eta etorkizunean hizkuntza sustatzea helburu duen proposamen bat egin ahal izateko. “

Zuzentasuna eta egokitasuna, ezinbesteko. “Ingurune digitalean euskarak izango duen erronka nagusia tresna berriak eta eraginkorragoak sortzea ez ezik, tresna horiek eta jada baditugunak erabiltzea eta eguneratzea ere izango dela uste du Arregik, eta azpimarra horretan jarri behar dela dio, baliabide horiek ezagutarazi, sustatu eta bultzatzeko modu berriak pentsatzean. Eta gutxieneko zuzentasuna eman bai, baina eskatu ere egin behar dugula dio, eta horretarako, presio soziala funtsezkoa izan daitekeela. Indarrak batu beharra ere ikusten du, eta euskarak aro digitalean egin behar dituen lanetan lidergoa hartu eta koordinazio-lanak egingo dituen koordinatzaile baten falta. “Lankidetzak sustatu behar dugu, guztiz agerikoa ez den lehia bat ere badelako gurean. Mila faktorek eragiten dute hori: argitalpenak, ikerketak, eta proiektuak garatu behar direla unibertsitatean merituen lortzeko; enpresak irauteko, beharbada, lehendik ere egoera prekario samarrean dituen langileak mantendu behar dituela; euskarazko edukiak doan eskaini beharra, baina aldi berean eduki horiek sortzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea... Finean, euskarara eta euskal kulturara ekarri nahi dira industriaren paradigmak: mozkinak, errentagarritasuna... eta euskal kulturaren ezin da. Euskararen egoerak ez du ematen horretarako”.

Beraz, euskararen normalizazioan eragin eta estandarizazio-prozesuan aurrera egin nahi bada, kontzientziazioa, presio soziala eta oinarria zaintzea ezinbesteko dela uste du Agirrek.”

Jardunaldiak

1.- Euskaltzaindiaren XXIV. Jagon Jardunaldia, 2019: Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean.

Hainbat hitzaldiren artetik hiru diskurtso nabarmentzearren, hauek aukeratu ditugu:

Batetik, aipatu da “euskarak [errentagarri bihurtzeko](#) enpresa bat”.

Leire Solozabal (Artez): “Euskarak enpresa errentagarri egin dezakeela konprobatuta daukagu, motibazioa areagotzen duelako, marka sortzen duelako eta abar”. (...) “Hain zuzen, euskarak balio dezake marka sortzeko edota langileen artean motibazioa areagotzeko.”

Bestetik, Jon Sarasuak emandako “*Abagunean kokatu: lan eremuaren haitza gorri*” [hitzaldia](#) laburtu egin du BERRIAk [artikulu honetan](#).

“Aurreko belaunaldientzat hezkuntza euskalduntzea mugarri izan zen bezala, belaunaldi berrientzat ere «lan mundua konkistatzea» izan daiteke «bisioa», ardatza, «Aizkorri non dagoen ikusten lagunduko diena». Sarasuak «gingarri» ikusten du hori —«hogeitaz urte daramatzagu egiten, eta enpresa asko euskaldundu ditugu»—, baina, horretarako, baldintza batzuk beharrezkoak direla deritzo.

Sarasuaren ustez, zeregin horri ekiteko «munta handiko artikulazioa» behar da erakunde publiko nagusien, tokiko erakundeen, nazio zein herri mailako euskalgintzako eragileen eta «beso teknikoaren» artean. «Akordio politiko sendo bat» ere behar da, eta «kontakizun aski malgua, askotariko sentsibilitateetara egokitu eta iristeko».

Asmo horrek guztiak «diskurtsoa fintzea eta malgutzea» eskatuko balu ere, Sarasuak ez du uste bidean aurkakotasun handirik aurkituko lukeenik: «Azken finean, enpresak hizkuntzen kudeaketa konplexua egitera deituak dira»

Amaitzeko, Confebask euskal enpresarien konfederazioko ordezkariak aipatu du ([bideoa](#) ikusgai) euskara sustatzearen alde daudela, lankidetzarako prest daudela, eta egiten dutela, ahal duten neurrian, baina euskara inposatzearen/ezartzearen kontrako diskurtso argia eta gogorra egin du, esanez “Zergatik eskatzen diezue enpresei gizarteari eskatzen ez diozuen? Zigorra hitza sartzen denean, agur!” esan du. “Euskal enpresa euskal gizartea da”. “Gure konpromisoa irmoa da, gizartea elebiduna den neurrian”. “Adostasun oso zabalak lortuz eta inposizioetatik urrun...”. “Irauten duten aurrerapenak astiro lortzen dira...” “Normalizazioa beharrezkoa eta desiragarria da, eta nahi duenari lagundu behar zaio, baina askatasun osoz, borondatezkotasunez eta diskriminaziorik gabe”. “Euskara normalizatu bai, Adostasunez, Naturaltasunez, Lankidetzan, Inposiziorik gabe, Progresibotasunez, Borondatezkotasunez.”

“Enpresa askok ez dute euskara sustatzeko beharrik ikusten”. “Enpresa gizartearen isla da”.

“Zuzendaritza eta langileria askotan ez datoz bat euskararen arloan.”. “Bridgestone enpresan Harzubi proiektua martxan jarri zuten”. “Interesa sortzen da enpresan, gizartean interesa sortzen den heinean” esan du.

“Talentu euskalduna zelan erakarri atzeritik? Jorrazteko bide bat izan daiteke euren lan baldintzez gain, enpresek erakustea euskara enpresarako gauza garrantzitsua dela, izan daitekeelako talentua erakartzeko beste osagai bat.”

2.- Udaltop 2019 jardunaldia: Zein izan behar dira euskalgintzaren baloreak XXI. mendean? Gorka Espiauren hitzaldiaren bideoa.

“Zein da arazoa gaur egun? Zerbitzu publiko berriak, enpresa proiektu erraldoiak eta proiektu komunitarioak ez daudela konektatuta. Oso proiektu onak izango dira, baina oso inpaktu eskasa daukate. Eta inpaktu sistemikoa bakarrik lortzen da politika publikoak, enpresen proiektuak eta gizarte proiektu komunitarioak konektatzen direnean narratiba eta balio sistemarekin”. “Gaur-gaurkoz euskararen biziberritze prozesua konektatuta al dago (duela 40 urte egon zen bezala) euskal gizartearen eraldatze prozesuarekin? ALCren hipotesia da ezetz, orain deskonektatuta dagoela.

Udaltop 2019 jardunaldia: **Nola autogobernatu hobeto (herriko hizkuntza) komunitatea**. Mario Zubiagaren hitzaldiaren [bideoa](#). Gobernantza eredu berriaren inguruko gogoeta interesgarria. “Egungo pultsio utopikoa non dago? Euskal komunikazio espazioan. Komunikazio espazio komunean. Elkarlanean dago gakoa”.

3.- Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren [mintegia](#) (2019): **“Euskara hizkuntza propioa izateaz gain, hizkuntza komun bihurtzearen erronka”**

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak euskarari eta immigrazioari buruzko gogoeta egiteko mintegia antolatu dute Bilbon. **Hamar hizlarik parte hartu dute eta gehienek nabarmendu dute** euskara kohesiorako tresna **behar duela** izan.

Ikerketa, berrikuntza, unibertsitatea, euskalduntzea

1.- **Ikerketa eta euskara**, Gurutze Ezkurdiaren BERRIAko [artikulua](#), (2020).

“Ezagutza zientifikoa aldizkari zehatzetan argitaratzen da, aldizkari *indexatuak* dira. Prestigioa duten aldizkariak. (...) Euskara lokalegia, tokian tokikoegia da, eta ez du lekurik horrelako zerrendetan. Euskaraz argitaratzen duten aldizkariak ere badira, baina *index*-ean oso baxu daude, egon. Ondorioz, euskaraz eraikitzen den ikerketa ez da meritutzat hartzen, ez du prestigiorik. (...) Beraz, euskaraz ikertzea ez da praktikoa, ezin baita ibilbide akademikorako erabili. Euskarak kristalezko sabaia du ikerketaren munduan. Noiz arte?”

2.- **Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena (EHU, ALC, Euskampus)**: unibertsitateak gizartea euskalduntzearen inguruan egindako ekarpena ere landu da [txostenean](#), eta hainbat aipamen interesgarri daude, testuingurua hobeto ulertzen laguntzen dutenak.

“Unibertsitate publikoaren barruan hezurmamitutako aldaketa horien artean esanguratsu jotzen dute elkarrizketatuek irakaskuntzaren euskalduntze progresiboa. Euskalduntzearen adibideak erakusten du barneko eragileen eta instituzioaren politikaren bat egiteak izan duen indarra une jakin batzuetan. Kasu horretan ere, pertsona eta talde jakin batzuen hasierako bulkadaren eta eskakizunaren jarraipena izan ziren unibertsitateak ondoren abian jarritako plangintzak.

Euskalduntzea etorri zen unibertsitateko irakasle batzuek eskatu zutelako. Gerora, normalizazio plangintzak etorri ziren, 90eko hamarkadan. Aldez aurretik euskaraz ematen ziren ikasgaiak ematen ziren irakasle batzuk egiten ari zirelako lan hori aldatzeko unibertsitatearen barruan. Gero, normalizazio politika batzuk ezarri ziren, eta egin zutena inportantea eta biderkatzailea izan zen, baina unibertsitateak berak bere kabuz zaila du aldatzea bere barne egitura (E-5, 11).

Unibertsitate gaztea izanik ere, bere ibilbidean UPV/EHUK ageriko hainbat barne aldaketa bizi izan duela berresten dute elkarrizketatuek. Ikuspegi historikotik begiratuta, gizartea eta unibertsitatea modu paraleloan aldatzen joan dira, eta gizartean gauzatzen diren dinamika sozial eta kultural berberak gorpuztu dira unibertsitatean ere. Trantsizio une batean dago unibertsitatea. Haren sorrera unean, frankismo osteko lehen urteetan, politizazio maila handia zegoen. Jendeak aldaketa gogoz jokatzen zuen, aldarrikapenak egunerokoak ziren gizartean ez ezik unibertsitatean ere. Euskal gizartea erakundetzen ari zen (erakunde politiko berriak sortzen ari ziren) eta unibertsitatea ere ia ezerezetik eraikitzen jardun zuten lehen urteetan bertaratu zirenek. Aldaketarekin konpromiso handia zegoen jende askoren aldetik, proiektu politiko, sozial eta kultural berritzaileak aurkezten ziren. Ohikoagoa zen gizarte aldaketaren aldeko aktibismoa, eta beste inon baino argiago garatu zen aktibismo hori unibertsitatean.

Joera horiek, baina, bestelakotu egin dira. Eta belaun arteko ordezkatzeari burutu da. Batzuen ustetan, Bigarren Modernitatean gauzatutako aldaketa kulturaletara jo behar da gaur egungo egoera ulertzeko. Gizartea, orokorrean, indibidualizatuago dago. Banakoaren proiektu pertsonalek kausa sozialek baino pisu handiagoa irabazi dute gazteen bizi proiektuetan. Bestalde, erlatibotasuna nagusitu da. Desideologizazioa eta lausotasuna handiagoak dira ideien eta balioen arloan. Eta txikiagoak, berriz, eraldaketaren aldeko asmoak eta ahaleginak. Euskal gizartea ere lehen baino kontserbadoreagoa da gaur egun. Ez dago presio handirik gauzak aldatzeko, jende asko nahiko eroso bizi delako. Baina, adierazitako aldaketa kultural horiekin batera, ez dira garrantzi gutxiagokoak gaur egungo gizarteetako egitura ekonomikoan gertatutako berrikuntzak, ezagutzen oinarritutako ekonomia globalaren testuinguruan. Zalantzarik ez, gaur egungo merkatu ekonomiko globalek unibertsitatei ezarritako eskariei ere eragina izan dute jaidura berrietan.

Hain zuzen ere, aipatu diren prozesu kultural eta ekonomikoek azaltzen dituzte unibertsitateko eragileetan (irakasle-ikertzaile eta ikasleetan) ikusten diren joerak. Hala, lehen garaiko ikasleek beren prestakuntza lortzeko ez ezik gizarte ereduak auzitan jartzeko eta eztabaidatzeko gunetzat zuten unibertsitatea. Gaur egun, ordea, ikasleek titulua lortu nahi dute hainbat arinen, lanmerkatuan ahalik eta baliabide handienekin integratu ahal izateko. Izan ere, lanaren munduan eta merkatu ekonomikoan azken hamarkadan jazotako birmoldaketek zaildu egin dute hezkuntza mundutik lanerako bidea.

Irakasleen aldetik ere nabarmentzen da trantsizio argi bat. Hasierako urteetako unibertsitate publikoan izugarritzko garrantzia hartu zuen irakaskuntzak, bereziki euskaraz abian jarritako ikasketen eskaintza berritzaileari aurre egin behar zitzaioelako. Eta, hain zuzen ere, irakas zereginetara bideratutako irakasle asko hasi ziren lanean UPV/EHUn, hura sortu ondorengo lehen hamarkadetan. Baina, urteekin, iruditeria akademikoan irakaskuntza bigarren mailako eginkizun izatera igaro da, ikerkuntzaren mesedetan. Arrazoiak: unibertsitatea aktore lehiakorra da gaur egun mundu globalizatuan ezagutza produzitzen duten beste unibertsitate eta entitate askoren artean. Ondorioz, hasiera batean irakaskuntza lanetara bideratu ziren ahalegin asko ikerketa eginkizunetara joan dira gerora. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arteko oreka berri horrek bestelako logikaren arabera irakasle-ikertzaileen birkokapena ekarri du. Irakasle-ikertzaile rola bilakaera tentsio handikoa izan da hainbat ikastetxe eta diziplina arlotan (unibertsitate eskola batzuetan, bereziki) eta zenbait adin taldeetan. Produktibitatearen terminoetan neurtutako eta saritutako ikerketa lehiakorraren bultzada instituzionala jotzen da aldaketa horren eragiletzat.”

3.- Euskarak komunikazio digitalean 2013-2017 bitartean izan duen [eboluzioa](#) EAEko enpresa pribatuetan (txikiak eta handiak) ikerketa lanaren emaitzak eta ondorioak ([txostena](#)), Lluena i Dret aldizkarian. La comunicación digital empresarial de las empresas privadas del País Vasco: uso y evolución del euskera entre 2013 y 2017. Angeriñe Elorriaga Illera, Maialen Goirizelaia Altuna, Amaia García-Azpuru.

4.- Euskal Berrikuntzaren Pertzepzioa, 2020 ikerketaren emaitzen txostena argitaratu berri du Innobasquek (2021). Basque Innovation Perception (BIP) bi urtean behin egiten den azterlana da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako 250 profesionalen osatutako talde batek Euskadiko I+G+b-aren bilakaerari eta ikuspegiari buruz duen pertzepzioaren jarraipena egiten du.

Aditu-taldeak aurreikusten du I+G+b inbertsioa %0-3 artean jaitsiko dela 2020an. **Inbertsioa 2021ean berreskuratuko da, eta are gehiago 2022an.** Aurreikuspen hori zabalduago dago enpresa-kolektiboan eta erakunde-kolektiboan. Taldeko gehienek ustez (%42,4), egungo testuinguruaren ondorioz berrikuntzak lehentasun handiagoa izango du enpresentzat. Hala ere, horrek lehia-posizionamenduari eusten lagunduko diola uste da, eta ez hobetzen; horrek esan nahi du **berrikuntza ezinbesteko baldintza izango dela enpresek lehiakor izaten jarrai dezaten.** Kolektibo guztiek dute pertzepzio hori. Adituen % 51,9ren ustez, Euskadin egiten ari den I+G+b jarduerari esker euskal osasun sistema sendotu egingo da egungo krisitik atera ondoren.

Adituen ustez, zientzia, teknologia eta berrikuntzako politikaren **lehentasun nagusiak** honako hauek izan beharko lirateke: **ekimen estrategikoak sustatzea** (%47,3), **digitalizazioa enpresetan eta gizartean** (%43,6) eta **berrikuntza ETEetan** (%43,2). Oro har, horiexek dira kolektibo gehienek adierazitako hiru lehentasunak; **ikertzaile-kolektiboa** da salbuespena, lehentasuna ematen baitie hark **jakintza eskualdatzeari eta talentua kudeatzeari.**

5.- Gwerfyl Wyn Roberts, Unibertsitatea.net-en (2019): “Ikerketan kontzientzia linguistiko eta kulturalaren falta traba izan daiteke oinarritzko ebidentzia ezartzerakoan”.


6.- **Euskara. Jarrerak eta iritziak** ikerketa ([txostena](#)). Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, HPS (2015).

EUSKARA HIZKUNTZA BEZALA AINTZAT HARTUTA, ZENBATEKO ADOSTASUNA DUZU ESALDI HAUEKIN?

- **EUSKARA EZ DA EGOKIA KOMUNIKAZIO BEHAR BERRIETARAKO, LAN MUNDUAN, TEKNOLOGIA BERRIETAN, ETAB.:** %22 Ados; %59 Aurka.

ETA, EUSKARA HIZKUNTZA BEZALA AINTZAT HARTUTA, ZENBATEKO ADOSTASUNA DUZU ESALDI HAUEKIN? /

Y, TENIENDO EN CUENTA AL EUSKERA COMO IDIOMA, ¿CUÁL ES SU GRADO DE ACUERDO CON LAS SIGUIENTES AFIRMACIONES?:



Euskara maila eta errenta maila

1.- Joseba Zalakainek (SIS) **Pobreen hizkuntzak** [artikulua](#) idatzi zuen BERRIAN (2020), eta hautsak apur bat harrotu zituen sare sozialetan. Ondoren, elkarrizketa egin diote *Euskara, ateak zabaltzeko LARRUN* alean (ARGIA, 2021), eta bestelako gogoeta plazaratu du “erdalduna=pobrea” eta “euskalduna=aberatsa” baieztapen arriskutsutik ihes eginez.

2.- Gai horri lotuta, **EuskaraGoiTek ikerketako 1. interpretazio kolektiboko saioan** antzerako narratiba bat identifikatu genuen, guretzat berria. Bizpahiru partaideren artean osatu zuten narratiba: **“Badago korrelazio bat euskara mailaren eta soldataren artean**. Euskaldunek eta alfabetatuek errenta maila handiagoa dute”.

Horren harira, saioan parte hartu zuen kide batek Galesko hizkuntzalari baten erreferentzia eman zigun, eta berarekin harremanetan jarri ginen Emunetik, EuskaraGoiTek-erako entzute osagarriko informazioa biltzeko.

Ikergazte kongresuan hizlari jardun zuen 2019an [Gwerfyl Wyn Robertsek](#), eta galesera hitun izatearen abantailak aipatu zituen, besteak beste. Galeseraren inguruko euren webguneko erreferentziak bidali zizkigun Robertsek:

Careers Wales [website](#):

- Advantages of being bilingual ([elebidun izatearen abantailak](#))
- Employment opportunities (handitu [enplegurako aukerak](#))
- Earning potential (handitu [irabazi ahalmena](#))

3.- 2021eko ekainean Paul Beitiak gaiaren inguruko [artikulua](#) argitaratu du Gedar kazetan: ***Euskara eta maila sozioekonomikoa: errebaso soziolinguistiko bat***.

4.- Errenta maila eta euskara lotzen dituen beste lan bat ondorengo hau da:

SLK eta Natxo Sorollaren [ikerketak lana](#) (2019): *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerrri mailako analisia. Laburpena eta ondorioak*.

“Errentak eta sandwich efektua.

Errenta da, esan dugunez, soziodemografia eta soziolinguistika lotzen dituen aldagai pisuenetakoa. Euskararen erabilera errenta ertain-altuekin lotzen da. Zehazkiago, errenta handienak eta baxuenak gaztelaniarekin lotzen dira, eta tartekoak euskararekin. *Sandwich efektu* deitzen zaio fenomeno horri. Horren arabera, gaztelaniak presentzia handia du behe-mailako klaseetan eta goi-mailakoetan; euskararen indarra, ordea, erdi-mailako klaseetan nabarmentzen da. Interesgarria da fenomeno hau euskararen berreskurapenari begira. Erdi-mailako sektore horiek (irakasleak, funtzionarioak, lanpostu egonkorra duten langileak, esate baterako) izan daitezke aktiboenak, eragile nagusiak, eta gizarte dinamika indartsuenak abiaraz ditzaketenak.”

Sariak, kongresuak, eta zientzia eta teknologia arloko atariak

1.- CAF-Elhuyar [sariak](#)

2.- **IKERGAZTE**, ikertzaile euskaldunen [kongresua](#). Nazioarteko ikerketa euskaraz.

Ikerlariak, euskarak batuak, [albistea eta testigantzak](#) Berrian (2019)

3.- Euskarazko doktorego tesien bilgunea, Tesiker ataria (EiTBko albistea).

Tesiker datu-basea berrituta aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzak eta Udako Euskal Unibertsitateak. 550 tesi daude dagoeneko bertan.

4.- **Elhuyar** zientzia [aldizkaria](#)

5.- **Ekaia** EHUren zientzia eta teknologia [aldizkaria](#)

6.- **Unibertsitatea.net** [ataria](#) eta blogak ([Ixa Taldea](#) eta abar).

7.- IndeusBerri: industria eta euskara uztartzen dituen informazioaren topagunea (SPRI)

8.- **Euskal enpresaren** [bloga](#). Basque Industry 4.0 (SPRI)